



ARGIA



SINDIKATUAK ZERTARAKO ESERI?

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA PATRONALAREN ESKU

» FRANTZIA ISRAELI IKASTEN: ZIBILAK GERRA ANTITERRORISTAN NOLA MOBILIZATU

» ANGEL MARIEZKURRENA, KANTU BAZKARIAK BIDAIA EMOZIONAL BIHURTZEN

» SORTUREN BIRFUNDAZIOAREN NONDIK NORAKOAK





euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

noiz:

azaroak 10 osteguna

non:

San Telmo Museoa
(Donostia)

ordua:

09:00-14:00

*oharra:

plaza kopurua
kontrolatu ahal izateko,
beharrezkoa da izena
ematea.

EGITARAUA

09:00: Aurkezpena

09:15: Hitzaldia: Euskal Herriko egitasmo komunikatibo mugiarazleak

- **Aitziber Gurutzeaga** (Egia Euskaraz)
- **Kattalin Miner** (Mugimendu Feminista)
- **Peru Aranburu** (Errigora egitasmoa)

10:00: Hitzaldia: Herrigintzatik Argia indartzera goaz
Iraitz Agirre eta Lander Arbelaiz (Argia)

10:30: Hitzaldia: How Iceland "crowd sourced" its constitution in the aftermath of its financial crisis
Katrin Oddsdottir (Islandia)

11:00: Atsedendia

11:30: Hitzaldia: ¿Un mundo sin traducción?
Scheherezade Surià, itzultzailea (Katalunia)

12:00: Hitzaldia: 'Merci Patron' y otros proyectos audiovisuales para el cambio social
Aritz Cirbián (Compacto Coop.)

12:30: Hitzaldia: La revolución de las sonrisas: la sociedad civil catalana y el nuevo activismo político
Galdric Peñarroja, argazkilaria (Katalunia)

Komunikazio emozionala:
tresna eta jokabide komunikatiboak
gizartea mugiarazten

Antolatzaileak



info+:

www.euskarabildua.eus

Babesleak



Laguntzaileak



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil
- IRITZIAK**
- 17 Asier Blas
- 18 Karlos Gorrindo
- 19 Zigor Etxeburua
Edu Zelaieta
- 20 Irati Elorrieta



4.000 familiatik gora bizi dira Sao Paulon etxe okupatueta. Hango herri mugimenduko borroka esparru indartsuenetakoa da.

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
DAVIDE CABALEIRO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Angel Mariezkurrena, euskal kantu zaharren zabaltzailea / Reyes Ilintxeta
- 22 | Hitzarmenak gehiengo sindikalaren ginetik? Blokeoaren arrazoiak / Urko Apaolaza Avila
- 28 | Sortu: Birfundazioaren oinarriak / Xabier Letona
- 31 | "Nire bizitzako hilabeterik txarrenak pasa nituen Opusen lanean" / Eñaut Agirrebengoa
- 32 | Etxerik gabekoen borroka Sao Paulon: okupazioa / Lander Arbelaiz Mitxelena
- 34 | Karin van der Worp, eleaniztasuna lantokian / Onintza Irureta Azkune
- 36 | Giza eskubideak eta transnazionalak: Nazioarteko araudi loteslearen bila, urrats txikiz / Unai Brea
- 44 | Susana Talayero: "Artista ez da ateraldiak otutzen zaizkion pertsona bat" / Danele Sarriugarte Mochales

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratiz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Irakeko Daeshen bihotzaren aurkako gurutzada

Urriaren 17an Mosul hiria Estatu Islamikoaren 2 urteko morrontzatik askatzeko borrokari ekin zioten 35.000 bat militarrek. Irakeko armadak eta beste hainbat gerrillak, AEBetako militar eta zerbitzu sekretuen gidaritzapean, antolatutako eraso honek sortuko duen krisi humanitarioak txiki utz lezake Siriako Alepon gertatzen ari dena. Bitartean, Errusiak eta Siriak su etena ezarri dute Alepoko zeruetan, eta kezka azaldu dute Mosuletik ihesi doazen jihadistak Siriako Estatu Islamiarra indartzera doazelako. Irudian: Mosuletik 10 kilometrotara dagoen Ba'ashiqah herriko aldirietako bonbardaketei begira daude hainbat peshmerga –Irakeko Kurdistan autonomoko borrokalariak–.

Argazkia: Olmo Calvo



t “Aizue, Aita Santuak dioela erraustea eta Elizatik ez pasatzea ez dela *business* ona, ezin dutela meza 50 euroan kobratu”

@fermont1965

t “Ba egia da Euskadin Athletic-ek agintzen duela... Zer nolako ‘praka jaitsiera’ Eusko Jaurlaritzarena”

@Garrosa SER irrati-ko Bilboko erredaktore burua, kirol instalazioetan alkohola kontsumitzea debekatzen zuen legea egokitu dutela-eta.

megaphone “Badakit Twitterrekin ez zarela ongi moldatzen; SMSekin, ordea, oso fina zara”

Pablo Iglesiasek
Mariano Rajoyri

megaphone “Kapitalaren eta oligarkien eskuinak, ongizate-estatua suntsitu duenak gobernatzea berri txarra da guztiontzat”
#RajoyrenInbestidura

Joan Tardà, ERC



Castejongo bigarren zentrala ixteko epaia eman du Gorenak

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Ziklo konbinatuko zentral termikoa hirigunetik 2.000 metro baino gutxiagora dagoela-eta ilegala dela berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak. Hala, duela ia hamar urte eraikitako planta itxi egin beharko du Elerebro enpresak.

Castejonen hiru zentral termiko daude, horietako bakarrak dauka oraingoz mar-txan jarraitzeko baimena. Beste biek auzitegien bidetik aurkitu dute euren akabera. Batak duela bost urte jaso zuen Gorenaren ilegaltasun sententzia, besteak joan den urriaren 18an.

Gorenako epaileak bat egin du 2013an Justizia Auzitegi Nagusiak esandakoarekin, hau da, instalazioa hirigunetik hain gertu

egonda ez duela legea betetzen, eta “arriskutsua eta kaltegarria” dela herritarrentzat. Hala, atzera bota du Elerebro enpresak – Castejon 1 eta 3 zentralen jabea – jarritako helegitea.

Gasaren burbuila amaitu da

2005ean hasi zuten proiektua gas energiaren burbuila gorenean zenean. Herritarrek segituan mobilizatu ziren azpiegituraren kontra, auzitara ere eraman zuten. UPNren garaian, baina, Nafarroako Gobernuaren erabateko babesa izan zuen zentralaren jardunak, auzibidea urte luzez ez atzera ez aurrera eramateraino.

Orain, gobernu aldaketa izan ondoren eta gasaren sektorea amilduta dagoela, Castejoneko paisaia hezurdura izatera kondentatu ditu justiziak tximinia horiek.

“Nor-nor baino gehiago dabilta *Game of Thrones*-eko irudiak sareratzen. Baina zertarako?”

JOSU WALIÑO, INFORMATIKARI ETA IDAZLE ZUMAIARRA

Game of Thrones telesailaren Euskal Herriko grabazioa spoiler-joko bilakatu dela dio Waliñok: “Nor-nor baino gehiago dabilta segurtasun neurriak gainditu eta ahal dituzten irudi guztiak grabatu eta sareratzen. Baina zertarako balio du horrek? Atzerriko hedabideak harrituta daude. Guztiok espe-ro genuen zaleak Itzurun inguruan ikustea protagonisten argazkia noiz lortuko, baina nik behintzat espero ez nuena zen kazetari profesionalak ikustea paparazien moduan”. **BALEIKE (2016-10-25)**



-AUTONOMIA-AROKO erakundeek URTE osoa pasatzen
UZTEN AHAL ZUTEN jakinarazi ere egin gabe DIRU-
LAGUNTZARIK EMANEN ZUTENENTZ...



-ETA ASTEKARIA NOLA ateratzen zenuten aurrera?
hornitzaileak, langileon soldatak, banaketa...



-Bankuekin zorpetuz; eta erakunde haiek ez
zuten euren gain hartzen zorraren lukurua,
beren INKOMPETENTZIAK horretaratuta bagintuen ere



-Hura prekarietatea orduko arbitrarietatea!
-antsietatea bai !!!



Bilbon, "Errebalida frankistarik ez!" lelopean.

JUANJO BASTERRA

LOMCEren aurka eta hezkuntza propioaren alde mobilizatu dira

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

LOMCE, Heziberri eta murrizketen kontra eta hezkuntza sistema propioaren alde urriaren 26an egindako mobilizazio eta lanuzteen balorazio "oso positiboa" egin dute deitzaileek: "Hasierako asmo eta aurreikuspenak guztiz gainditu ditugula aitortu behar dugu". Steilas, ELA, ESK, CCOO eta UGT sindikatuek eta EHIGE guraso elkarteak deitu zuten mobilizatzaera, eta Aitor Idigoras Steilaseko kidearen arabera, "hezkuntza komunitatearen inplikazio handia ikusi dugu, bereziki guraso eta irakasleen aldetik, eta alderdi politiko gehienengandik ere babes izugarria jaso dugu". Kuantitatiboki bakarrik ez, kualitatiboki ere "interpelazio oso potentea egin diegu Hego Euskal Herriko administrazioei eta berretsi dugu guraso eta irakasle askok bide honetan gurekin batera jarraitzeko asmoa dutela". Ziklo baten hasiera dela aipatu du Idigoras, eta EAERako egosten ari den Hezkuntza Legea "oso gertutik" segituko dutela: "Bertako administrazioari eta gure agendari begira gaude, ez Madrili begira".

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, EAEn lanuztea egin duten irakasleak %8 izan direla adierazi du.

"Madrildik datorren deialdiari, ez"

Ikasle Abertzaleek, LABek, Ikastolen Elkartek, Kristau Eskolak eta Sortzen-ek ez dute bat egin deialdiarekin, eta Ikastolen Elkartearen hitzek laburbiltzen dute gehienenez mezua: "Madrildik datorren LOMCE inposaketari ez, eta honen kontra Madrildik datorren deialdiari ere ez". Madrilen eskola paktu berria negoziatzen ari direla eta grebak horri erantzuten diola diote Ikastolek, baina izan LOMCE, izan datorren legea, "Madrilek ezartzen digun markoa gainditu eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza sistema eraiki behar dugu".

Errebalidak bertan behera?

Bestalde, Espainiako Kongresuko inbestidura saioan Mariano Rajoy PPko buruak iragarri du DBHko eta Batxilergoko azterketek ez dutela akademikoki eragirik izango "akordio nazionala" lortu arte. Gogoratu behar dugu bestela ere aurtengo ikasturtean DBHko kanpo-azterketetan ateratako emaitzek ez dutela balio akademikorik, lehen urtea izanik "salbuespen" hori ezartzen baitu LOMCE legeak. Ikusgai da aurrera begira zer gertatuko den, PPk gehiengo absolutua galdu duela eta gainerako alderdiak gutxienez LOMCEren kanpo-azterketak kentzearen aldekoak direla aintzat hartuta.

EKONOMIAREN TALAIAN

Europar jungla



Juan Mari Arregi

Aurreko aste osoan zehar frantziar agintariak Calaisko kanpalekua eraitsi dute. Plastikozko txabola eta dendez osaturiko herrixka horretan bizi ziren 6.500 etorkin, Erresuma Batura igarotzeko zain, horietako asko asilo egoera eskatuta gainera. Calaisen milaka lagunek baldintza jasangaitzetan irauten zuten, hotza, hezetasuna, apenas hamar komun mugikor eta iturri gutxi batzuekin higienarako oinarritzko beharrei erantzuteko. Leku horri *Jungla* deitzen zioten, "legerik, babesik eta giza eskubideen gutxienezko aitortzarik gabeko espazio" zelako. Badirudi Frantziari lotsa ematen diola egoera horrek eta bere aurpegia garbitu nahian dabil, arazoa konpondu beharrean.

Europako bihotzaren erdian dauden jungla ez dute migratzaile politiko eta ekonomikoek sortu ordea. Europa "elegante" eta "demokratikoak" sortu du, babeserako eskubideari muzin egin eta etorkinen kontrako politikak ezarri. Han eta hemen harresiak altxatu ditu, bazterkeria soziala sustatu du eta krisi humanitarioaren aurrean hartutako konpromiso apur eta zekenak bete gabe utzi ditu. Krisi horrek dozenaka milaka migratzaile mugiarazi ditu europar kontinentera, beste milaka "paradisu" edo *El Dorado* partikular honetara iristeko bidean hil diren bitartean.

Kapitalismoaren aurpegia horixe da, horretarako baititu kudeatzaile onenak eserita Europako Parlamentuko eta gobernuetako besaulkietan. Jungla hori ezabatzeko, lehenik onartu beharko genuke Europak berak sortu duela, eta erantzukizuna duela horretan; ondoren, hartutako konpromisoak bete; eta migrazio fluxuak jatorrian saihesteko politika sozio-ekonomiko globalei ekin: herrialde horietan inbertitu behar da, beren baliabide naturalak esplotatu ordez.



NAIZ- EK IGOTAKO BIDEOAREN IRUDIA

Iruñeko polizia-etxean hildako gizonaren kasua argitzeko eskatu dute

IRUÑEA. Elhadji Ndiaye 42 urteko senegaldarra urriaren 25ean atxilotu zuen Espainiako Polizia Nazionalak, Arrotxapean. Poliziaren bertsioaren arabera, atxilotetaren unean gizonak eraso egin zien, baina polizia-autora sartzean lasaitu eta General Chinchilla kaleko komisaldegira eraman zuten. Bertsio ofizialaren arabera, ziegara sartzeko zain zegoela hil zen, ustekabea. Ondoren, atxiloteta ikusi zuten hainbat lagunek adierazi dute, Ndiaye konorterik gabe sartu zutela poliziaren autoan. Argitzeko eskatu dute, eta hala bada, galdetu dute ea zergatik poliziak ez zuen ospitalera eraman artatzera.

Altsasuko liskarra terrorismo bilakatu dute

Lander Arbelaiz Mixelena

@larbelaiz

Altsasuko taberna batean goizaldean bi guardia zibilekin eta haien bikote-kideekin gertatutako liskarra hainbat pertsona eta mugimendu zigortzeko aitzakia izateko bidean da. Espainiako Auzitegi Nazionalako Carmen Lamela epaileak ontzat ikusi du terrorismo delituagatik ikertzea.

“6 ziren, ez 50”

Nafarroako Foruzain-goak gau horretan agente baten bikoteari hartutako deklarazioa ez dator bat bertsio ofizialarekin. Esan zuenez, sei ziren liskarrean parte hartu zutenak, ez 50, lintxamenduaren teoria gezurtatuz.

Istilua terrorismo

Guardia Zibilaren eta Foruzaingoaren txosten banak liskarra ez dutela terrorismo gisa ulertzen adierazi arren, Espainiako Auzitegi Nazionalak baietz dio eta bere gain hartu du ikerketa.

Soka ekar dezake

Bertsio ofiziala zalan-tzan jarriz prentsaurrekoan parte hartu zuten herritarrak eta Altsasuko Gaztetxeo Twitter kontua eramaten duten lagunak identifikatzeko agindu du Espainiako Auzitegi Nazionalak.

MEMORIA
HISTORIKOA



306

iruindar hil ziren Iruñean frankismoan, Udalak publiko egin duen txostenaren arabera.

1.014

iruindar espetxeratu zituzten. Beste praktika batzuen ikerketan sakontzeko eskatu du Oroimen Historikoaren Bulegoak, hala nola tortura, genero-erasoak eta kultur-errepresioa.



14:38EAN KALERA

Islandiako milaka emakume 14:38ean atera dira lanetik, soldata desoreka salatzeke. Ordua ez dute kasualitatez hautatu: gizonak irabazten duten soldatarekin erkatuta, lanaldian emakumeek ordu horretatik aurrera kobratu gabe egiten dute lan.



ZAHAR ETXEETAKO LANGILEAK GREBAN

Bizkaiko zahar etxeetako langileek, aurtien 32 egun greban egin eta gero, beste lanuzte bat hasi zuten urriaren 24an, hiru astekoa. Patronalekin akordioarik lortu ez eta ELAk deitu zuen urteko laugarren lanuztea. Konponbidetik urrun da gatazka.



LAN ISTRIPUA

Ferrosen enpresak azpikontratatura, Gasteizko Michelin lantegian beharrean ari zen gizon bat hil da, pisu handiko pieza bat gainera erori ostean. Abuztuaren beste langile bat zendu zen lantoki berean. Hori salatzeke 24 orduko lanuztea egin zuten.

Frantziako armadak Israeli kopiatsu nahi lioke herritarren mobilizazioa



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

2015etik Hexagonoan ugaritu diren atentatu islamisten beroan, Israelgo estatuaren segurtasun eredia kopiatzeari ari dira politikariak, kazetariak eta baita juez izarrak ere. Askok ohartarazi duten arren Israel eta Palestina giza eskubideen Guantanamo kamuflatu bat direla gaur, Israelen zer kopiata asko aurkitu dute frantses agintariak. Bat, erreserbista zibilen mobilizazioa sustatzea militarren lana errazteko.



Frantzian eztabaidagai da gaur herritar zibilen eta armadaren parte hartzea borroka antiterroristan. Esan nahi baita, 2015az geroztik ugaritu diren atentatuak hauspoturik, militar edo polizia ez direnek nola esku hartu horiei dagozkien betekizunetan, eta bestetik nola integratu gero eta gehiago barne segurtasun aferetan armada.

Le Monde Diplomatique ren webean daukan *Defense en ligne* (Defentsa le-roan) blogean Philippe Leymariek aipatu ditu Parisko legebiltzarraren enkarguz aurkeztu diren bi proposamen. Bata da Jean-Marie Bockel eta Gisele Jourda senatariak landutako “*Garde Nationale*”: *erreserba militar sendo eta territorializatua krisiei aurre egin ahal izateko*. Bestea Olivier Audibert Troin eta Christophe Leonard diputatuak aurkeztua: *Armada nazioaren eremu barruan erabiltzeaz*.

Troin eta Leonard diputatuak funtsean aztertu dituzte militarrek estatu barruan erabiltzeko Belgikak, Britainia Handiak eta Israelak dauzkaten ereduak. Aldaketa handietan sartuta gaude, titulu honek erakusten duenez: *Paradigma aldaketa 2015ean: Armadaren esku hartze iraunkor eta masiboa eremu nazionallean, mehatxuaren iraupenak eta intentsitateak justifikaturik*.

Israelen hautaketak ez luke inor eskandalizatu behar, diputatuen ustez: afera soilik omen da “aztertzea demokrazia bat nola egokitu zaion epe luze-ko mehatxu terrorista bati, alde batera

utzirik batzuek borroka armatuari ekitaren kausa eta motiboez egin ditzakegun irakurketa politikoak”. Arima bihozberak lasaiturik, hona Israel.

Terroristak beren ehizakiak diren hirietatik ahalik eta urrunen gelditzea da Israelen lehentasuna. Horretarako, armadako militarrek zaintzen dituzte frontierak eta informazio zerbitzuek etxe barrua. Israelgo mugen inpermeabilizatzeko mailak ezagunak dira, sarbide nagusia den Ben Gourion aireportuaren kontrol neurri txit zorrotzak, Palestina autonomo mutilatutik babesteko harresi fisikoa, eta abar luzea.

Israel barnean, hiru informazio zerbitzu nagusi: Aman armadaren atala; atzerrian espioitza egiten duen Mossad (Frantzian gaur DGSE litzatekeena); eta barruko kontraespioitarako Shin Beth (Frantzian lehen DST zena, gaur DGSI).

Ofizialki Shabak deitzen den Shin Beth berak bakarrik dauzka 7.000 agente. Proporzioan, Frantziak edukiko litzuzke 55.600... gaur dauzkan 4.400en tokian. Atal nagusietan banatua –operazio bereziak, kontraintsurrekzioa, zi-ber-gerra, gehi eskualdekako adarrak–, bakoitzak autonomoki dihardu informazioa bildu, analizatu eta operazioak burutzen.

Hiri bakoitzeko azpi-atala ere arras autonomoa da kontraespioitza lanetan. Shin Bethen familia bakoitza eta herritar bakoitza kontrolatzen du zona “bero” deituetan. Agente asko daude eremuotan luzaz infiltraturik, *immersio* eredu.

Zerbitzuen koordinazioa *pool* edo batzorde moduan burutzen dute, baina azken hitza beti daukate Armadaren ordezkariak.

Israelgo armada berez mugen zain-tzan dago berezitua, kanpoko etsaiei begira. Baina, ordainetan, barruko polizia oso dago militarizatua eta gainera arma asko daude herritarren artean banatuak, beti militarren kontrolpean.

Eredu antiterroristaren beste bi zangoak dira, batetik Magav izeneko polizia 18.000 agenterekin, gehi 1.500 erreserbista, eta armada, Tsahal ospe-tsua, zeinaren eginkizun nagusia diren mugen zaintza eta Israelen okupatutako Golan eta Zisjordaniaren kontrola. Zisjordaniaren sailkapen militarrean, C zonaldea Israelgo armadaren kontrolpean dago osorik, A eremua da Palestinako Agente Nazionalari dagokiona –bere menpeko baldintza guztiekin– eta B eremua elkarlanean kontrolatzen dute ofizialki.

Gazte prekarioen bila

Hautetsi frantsesei biziki interesatu zaie militar israeldarrek erreserbistentzako garatuta daukaten egituraketa sendoa. Edozein segurtasun krisiren aurrean Tsahalek prest dauzka erreserbistaz osatutako hogeitaz dibilisio, ehunka mila gizon eta emakume.

Izpiritu militarrek lurrindu du Israelgo gizarte osoa. Eskoletatik hezten dituzte israeldarrek segurtasun eredu-umetan hasita. Eta arma asko daude



AP agentziak banatutako argazkian, israeldar kolono ultraortodoxo armatua militarrekin elkarlanean Zisjordaniako errepide batean, 2014ko udazkenean. Israelek segurtasun teknologia aspalditik esportatzen du mundu osora eta orain, Ekialde Hurbileko gatazken astinduak Europako hiriburuetaraino iritsi direnean, lider europarrek kopiatzeko gauza asko aurkitzen dizkiote haien segurtasun estrategia osoari. Ahazturik estrategia antolatu dela nazioarteko lege humanitarioak sistematikoki zanpatzearen kontura.

herritarren eskuetan. Horrela konpentsatzen dute, ulertu dute frantsesek, kaleetan uniformeazko poliziek daukaten ikusgarritasun ahula. Populazioaren %3k dauka arma baimena, Frantziako biztanlegoari egokituz bi milioi liratekeenak. Datu ofizialen arabera, gaur egun arrisku terroristen %25 haiek geldiarazten omen dituztenez, estatuaren asmoa da aurrerantzean arma horiek geolokalizatu eta koordinatzea edozein alertatan.

Troin eta Leonard diputatuen lanaren paraleloan, Parisko Senatuan Jean-Pierre Raffarin lehen ministro ohia buru duen Defentsa batzordeak landu du erreserba zibila hobetzeaz txosten zabala, Jean-Marie Bockel eta Gisele Jourda senatariek koordinaturik. Datozen urteotan zibilen artean militarrek lana nola egingo duten pistak ematen ditu.

Frantziak baditu armadaren bi erreserba, Gobernuak arrisku graduaren arabera mobilizatu ditzakeenak. Gainera badira Estatuaren funtzionarioz osatutako erreserba zibilak, senatarien ustez, gaurko beharren aurrean ondo koordinatu gabe daudenak. Armadaren estatu gorenak, diote, estuagotik koordinatu behar ditu erreserbista zibilak, militarren izpirituz blaitu, Frantziaren defentsa gai nagusien jakitun egin. Eredua izan omen daiteke ziber-defentsan -Internet eta eremu digitalaren zaintzan- ari diren erreserbistekin militarrek burutzen ari diren lanketa.

Operazio militarretarako deitua izan daitekeen erreserba zibilak bere errekrutatze iturriak dibertsifikatu behar ditu, bereziki gazteen artean. Senatariak oroitarazten dute Defentsako kodeak baimentzen duela 17 urtetik go-

rako edozein gazte engaiatzea: "Gazteei deituek ahalbideratu behar du armada-nazioa lotura sendotzea, ondoren, kohesio nazionalaren sendotzeko oinarrietako bat delarik. 15-20 urteko adin tartea da helburuotako tresnarik baliotsuenetakoa eta horietan zentratu behar da lehenasunez. Bestetik, lurralde nazionalaren defentsari dagozkion behar operazionalak daude, eta gaur armadek 'beso' horiek behar dituzte beren funtzio estrategikoa betetzeko".

Lan bila dabilzanak omen dira erreserbisten beste sehaska bat. Armadarekin elkarlanean asko ikasi dezakete, esperientzia irabazi. "Pôle Emploi [enplegu bulego] eta militarren arteko elkarlanak fruituak emango ditu erreserbetan". Aldikako lanak egiten dituzten prekarioak militarrei hurbiltzeko, Defentsak eta Adecco ETak elkarlana abiatu dute. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Angel Mariezkurrena, kantu bazkari antolatzailea

«Ez du inporta besteen aurrean zirrarara sentitzen baduzu, hori du ona kanta zaharrak»

Angel Mariezkurrenak antolatutako kanta zaharren bazkariak bidaia musikal, gastronomiko eta emozionalak dira. Hori lortzeko kanta zaharrak txirikordatu egiten ditu joaldun, musikari, dantzari eta hamaika sorpresarekin, orkestra zuzendari trebearen moduan.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Kanta zaharrekiko maitasuna nondik heldu zaizu?

Aita-ama eta senideen ondoan beti kantuan aritu izan naiz txikitatik. Nire aita zenak inoiz entzun dudak ahotsik ederrera zuen. Zeinen lastima grabatu ez izana. Aitak goiti kantatzen zuen eta amak behetik. Berezkoa zuten kantua. Lehen, jendea herrian barrena edo herritik herrira ostatueta kantari ibiltzen zen, eta hori da betidanik ezagutu dugun giroa. Eratsunen, gainera, nire txikitako garaian oso gauza berezia gertatzen zen. 40 gazte inguru urte hasieran joaten ziren mendira lanera eta Eratsungo festetarako, irailaren 8rako, itzuli. Denak batera iristen ziren, bozina joko eta plazako bazterretan herri osoa zain egoten ginen. Eratsungo festetan, Eguberrietan eta Erregeak pasatuta lehenbiziko larunbatean egiten ziren inauterietan, dena kantua zen. Ondoren, gazteek alde egiten zuten mendira.

Saioak antolatzen hasi baino lehen, pare bat urtez ibili nintzen etxez etxe eta baserriz baserri kanta zaharrak berreskuratzen. Beheko suaren ondoan eseri eta aitatxi-amatxiek kantatzen zuten idazten nuen. Internet mundua zer zen ere ez nekien orduan eta horrela

kanta asko ezagutu nituen. Sunbillako apaizak ere asko eman zizkidan.

Afizioa nola bihurtu zitzaizun ofizio?

27 urte daramatzagu Baztango 67ko kintoen bazkaria egiten eta han ere abesteko ohitura handia dute, baina kantatzen hasi eta jendeak letra asko ez dakizkielako abesti guztiak lalala-rekin bukatzen genituela ikusten nuen. Duela hamabi urte, pentsatu genuen zergatik ez egin kantu bazkari bat eta letren fotokopiak jarri plateren ondoan, gero gustura kantatzeko. Horrela antolatu genuen bazkaria Sunbillako Ulibeltzak elkartean, pentsatuz etxeok, 40 bat lagun, hurbilduko zirela. Dena bete zen, 109 pertsona! Ateak zabaltu eta kanpoan ere jende pila zegoen gustura aditzen eta kantatzen. Ez genuen halako arrakastarik espero.

Hurrengo urtean, Elizondoko Lur aretoan antolatu genuen beste bat. Sartu ziren 250 lagun bazkaltzeko eta arratsaldean 800 bat heldu ziren kantatzera. Dena bete zen, polita, ederra, oso ongi pasa zuen jendeak. Alex Mujikak egin zuen bazkaria uso eta onddoekin, eta han izan ziren Jaione Olazabal, Xabier Euskitze... baina Sunbillakoa epela eta

goxoa izan zen bezala, hau hotza iruditu zitzaidan, tokiarengatik. Kanta zaharrak goxotasuna eskatzen du, eta janaria. Sasoian sasoikoa. Horrek ere badu bere xarma. Jose Angel Elizalde soinu-jotzailea zegoen han nirekin eta berak esan zidan oso toki polita zegoela horretarako Dantxarinean [Urdazubiko auzoa], Benta Peion. Lugaran jatetxea da, Martiko familiarena. Ikustera joan nintzen eta haiei ere asko gustatu zitzaizen ideia. Gainera, haien aita oso kantuzalea da. Azaroaren azkeneko larunbaterako gelditu ginen bazkaria egiteko.

Zergatik data horretan?

Ehiza garaia ordurako bukatua delako eta Eguberriak oraindik ailegatzeko, asteburua aproposa da. Izugarri laguntzen dit Martiko familia osoak, urtero-urtero. Tokia dena da harria, egurra... oso goxoa, eta handia, 500 bat pertsona sartzen dira eta dena bete-betea egoten da. Egun horretan denetik dago: kantua, joaldunak, dantzariak, musikariak, sorpresak... Eguerdian hasi eta 22:30ak arte hantxe.

Kantu bazkariarekin hasi nintzen, gero kontzertuekin segi, eta duela bost urte kamioia utzi eta soilik honetan aritzea erabaki nuen.

A portrait of Angel Mariezkurrena, a middle-aged man with grey hair and blue eyes, wearing a black button-down shirt and a necklace with a circular pendant. He is standing in front of a background of concentric white circles on a light-colored wall.

Angel Mariezkurrena Deskarga

1967, Eratsun

Duela hamabi urte hasi zen kantu bazkariak antolatzen lehenbizi Sunbillan eta Elizondon, eta gero abian jarri zuen urtero Dantxarinean, Benta Peion, arrakasta itzelez egiten den Kanta Zaharren Eguna. 2011n garraiolari lanbidea eta kamioia aparkatu zituenetik, bazkari, afari eta kontzertuak antolatzen ditu kanta zaharren inguruan, baita Benito Lertxundi eta beste punta-puntako abeslariekin ere.

Enkarguz egin zenuen lehen kontzertua erre zen baserri baten aldekoa izan zen?

Bai, 2010ean. Leitzako Arkiskil auzoko Musun baserria erabat kiskalita gelditu zen otsailaren 28an eta haren alde kontzertu handia antolatzeke esan zidaten. Pantxoa eta Peio, Erramun Martikorena, Jaione Olazabal, dantzariak, abesbatzak... plazan bi eszenatoki paratu genituen eta oso polita gelditu zen. 2012an Bilboko Euskaldunan antolatu nuen Xabier Lete, Imanol eta Laboari egin zitzaizen omenaldia. Kanta zaharrak ez du mugarik.

Zer eman dizute kanta zaharrek?

Gauza asko. Pentsatzeko modua, haste-ko. Ez du inporta nor duzun ezkerrean eta nor eskuinean, edo nola pentsatzen duen bakoitzak. Kulturak denok elkartzeko balio du. Kanta zahar gehienak, %90, bertso zaharrak dira eta haietan biltzen da Euskal Herriko historia: elizako kontuak, kirolekoak, artzainenak, arrantzaleenak, familiarenak, Ameriketakoak, gerrak... Niretzat estudiorik handiena, karrerarik handiena, horiek guztiak hitzez hitz entzutea da. Askok ez dakigu norenak diren, baina beste batzuetan ikusten dira Xenpelar, Txirrita... mila bertsolari bikain. Euskal Herrian bertsolariak dauden bitartean kanta zaharrak egonen dira. Bertsolari gazteak ikustea gauza handia da.

Lehengo egunean sorpresa polita izan nuen, non eta etxean. Bazkaria prestatzen ari nintzen sukaldean eta seme zaharrena ikasten ari zelarik, kantuan aditu. Kanta zaharrak gustatzen zaizkio, bere anaiari bezala. Bi semeak aitaren atzetik dabiltza harat eta honat. Iruditu zitzaidan Txirritaren bertsoak zirela, baina ez, Lazkao Txikirenak ziren, ispiluaren aurrean botatakoak. Oso politikak. Pentsatzen nuen irakurtzen ari zela, baina buruz ikasiak zituenez guztiak. Sorpresa ederra hartu nuen. Orain, semeak sarrerak eskatu dizkit bere kuadrilla osoak Dantxarinera joan nahi duelako. Oso-oso polita da horren jende gaztea kantuan inguruan ikustea. Iaz 500etik 200 bat ziren gazte-gazteak, eta emakume gehiago gizasemeak baino. Horrek poz handia ematen dit erakusten duelako denak berdinak garela. Sunbilla, ostatuan emakumeak musean jokatzen ikusi nituen lehen aldian harrituta gelditu nintzen, Eratsunen ez nuelako inoiz ikusita, eta polita da ikustea nola ari diren gauzak onerako aldatzen.

Baluarte Biltzar Jauregia goraino bete zenuen Iruñea Kantuan saioarekin, UPNren garaian...

Duela lau urte antolatu nuen lehenbiziko aldiz eta oraindik garai zailak baziren ere, aurrera ateratzea lortu genuen. Oso nekeza da kulturaren alorrean bizimodua ateratzea. Laguntzak, babesleak behar dira. Zorionez iaz aldaketa handia izan zen Nafarroan eta Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak egin dutena zoriontzekoa eta eskertzekoa da. Ez nigatik bakarrik, kulturarengatik, oro har, egiten ari direnagatik. Badakit ez dela erraza eta kolpean joan garela denak eske, baina gauza asko egiten ari dira. Elkartze hutsa arrakasta handia da. Gero erabakiko da gauzak egiten diren ala ez, edo nola egingen diren, baina aurrez aurre hitz egin ahal izatea, entzutea, niretzat gauza berria da. Aurreko gobernuarekin eta Iruñeko Udalarekin mila bider saiatu nintzen arren, inoiz ez zizkidaten ateak zabaldu. Mina ematen zidan, Gipuzkoan, Bizkaian, leku guztietan ate zabalik hartzen ninduten, eta aldiz Nafarroan, etxean, beti ezinean.

Zer moduz sanferminetako kantu bazkaria?

Aurtengo sanferminetan egin dugu lehen kantu bazkaria Baluartan. Ikusgarria izan zen. Nik neuk ere ez nuen espero hain emaitza ona. Jendea hunkitua, dantzan... Dena bete zen. Eszenatokia oso ongi prestatu zuten ETBren laguntzarekin. Hasiera-hasieratik izugarritzko besta giro eta bizitasuna zegoen. *Eperra*, *Xalbadorren heriotzean* eta ohiko kanta guztiak eman genituen, baina beste umore batekin.

Nolakoak dira zuk antolatutako bazkariak?

Bi modu daude kantu bazkariak egiteko: Hegoaldekoa eta Iparraldekoa. Hegoaldean lehenbizi jan, edan eta gero hasten da jendea abesten. Iparraldean, aldiz, jan bitartean abesten dute. Hori da nik aukeratu dudana moldea eta ikaragarria da.

Dantxarinean urtero azaroaren azken larunbatean egiten den Kanta Zaharren Eguna gero eta arrakastatsuagoa da. Zergatik?

Oso egun sentikorra delako. Jendeak abestu eta dantzatu egiten du, eta hunkitu egiten da. Behin batek esan zidan

Bakarrik ez

“Argi dago hau ez dela nire kontua bakarrik. Ez dut deus asmatu. Kantua berreskuratzea denon kontua da eta zorionez gero eta gehiago dira kanta saioak, kantu taldeak, kalejirak...”

Enpresaria bezero

“Logroñoeko gizon bat etorri zitzaidan esanez bera kanpotarra zela, ez zekiela euskaraz, baina harrituta gelditu zela kantu bazkaria ikusita. Enpresaria zen eta handik gutxira Logroñora gonbidatu ninduen kantu bazkari bat antolatzerantz biltzekoak ziren 26 herrialdetako enpresarientzat. Jaione Olazabal kantariarekin joan nintzen. Sei kanta eman genituen euskaraz eta bat erdaraz, Nana Mouskourirena. Denak dantzan paratu genituen poz-pozik”.

Xalbadorren heriotzean ez genukeela kantatu behar bera negarrez hasten zelako. Esan nion baietz, hori dela ederra eta sentimendu hori onartu egin behar dela. Ez du inporta besteen aurrean zirrara sentitzen baduzu eta ez da ezkutatatu behar. Hori du ona kanta zaharrak.

Duela lau urte ETBk grabatu zuen saioa eta geroztik are jende gehiago etortzen da Euskal Herri osotik, baita kanpotik ere. Askok eta askok gelditzen dira sarrerarik gabe.

Zein izaten da lehen kanta?

Lehenbiziko kanta beti da *Euskal Herrian Euskaraz*. Beti eta toki guztietan.



Jendea berotzeko oso kanta ederra da. Doinua eta letra, biak oso politak dira. Gainera, iruditzen zait errespetu handia ematen diola jendeari.

Kanten hurrenkera egokia antolatzea arrakastaren gakoetako bat al da?

Bai, hala da. Abestien zerrenda egiteko pare bat hilabete behar dut, edo gehiago. Jende asko dago euskara eta euskal kultura ikaragarri maite dituen baina zoritxarrez euskaraz ez dakiena, eta haiek ere kontuan hartu behar ditugu beti. Kontzertu batean kantak izan behar dira hasieran apalak, goxoak baina politak, *Eperrak*, *Erribera*, esate

baterako, eta bukaera aldera gero eta bizitasun handiagoa behar duzu denak zutik jartzeko. Hori lortzeko abestiekin, musikariekin, abesbatzekin, haurrekin... jokatu behar duzu.

Nafarroan hasi eta orain Euskal Herri osoan zabiltza, ezta?

Herriz herri ibiltzen naiz, Markina, Ondarroa, Bera... Deitzen didaten toki guztietan. Toki batzuetan pentsatzen dute: "Dantxarinerako sarrerarik ezin bada eskuratu zergatik ez ekarri Angel hona?". Eta Angel, Angel da, eta toki guztietara joaten da gustura. Ondarroan lehen urtean 40 pertsona bildu ziren.

Aurten, bigarrenean 150 baziren. Tokian tokikoek parte har dezaten saiatzen naiz beti: musikariak, dantzariak, haurrak... Haurrena oso kontu polita da. Hemen Iruñean, Sarriguren [herriko] eta Mendillorriko [Iruñeko auzoko] haurrak etorri ohi dira kantatzera. Guztiei eskaintzen zaie etortzeko aukera, nahi duenak altxa eskua eta etorri. Berdin dio ahots polita izan edo ez. Denak etortzen ahal dira. Nik oso esperientzia txarra izan nuen gaztetan, koro batean saiatu nintzen sartzen eta ez ninduten hartu. Gero Donostiako beste talde batean saiatu eta berdin. Horregatik hemen ez da inor kanpoan uzten.



Azken hitza: Kanta bat eta kantari bat

“Orain Reyesi kantatuko banio, *Loreak udan* hautatuko nuke, hitzengatik. Abeslari bat hautatzekotan Benito Lertxundi. Niretzat idoloa izan da beti. Bere kantaldiak ikustera joaten nintzen Oriola eta orain kontzertuak egiten ditut berarekin. 50 urte daramatza oholatza gainean eta dena betetzen du. Benito Benito da”.

Saioetarako musikari profesional ugari mugiarazten duzu.

Saiatzen gara tokian tokiko musikari eta taldeak gonbidatzen. Bizkaian Alex Sar-
dui, Korrontzi edo Getxoko abesbatza, Donostian Easo abesbatza edo Urko; Iruñean Paz de Ziganda abesbatza, dantzariak... Beste batzuk beti etortzen dira nirekin: Jaione Olazabal eta Aitor Ibarra *Jalisko* sunbildarra, esate baterako. Zuhietako joaldunak ere bai, gure kulturaren zati garrantzitsu direlako. Jendeak gozatu egiten du haiekin. Espiritu txar guztiak bazterrerara bidaltzen dituzte eta harmonia ona lortu. Bestalde, Txema Garcés lagun handia dut. Kanta guztien moldatzailea da eta baxu-jotzaile aparta. Modu berean Juanxo Zeberio pianoarekin, Joxerra Mitxelena gitarrekin, Francisco Herrero biolinarekin, Iñaki Dieguez eskusoinu-jotzaile bikaina, Asier Oleaga perkusioarekin... oso musikari onak denak.

Hemendik aurrera zeintzuk dira hitzordu nagusiak?

Azaroaren 5ean Barañaingo Auditorioan izanen gara, gero 26an Dantxari-
nean Kanta Zaharren Eguna, abenduaren 3an Kursaalaren eta abenduaren 17an Petritegin, Astigarragan. Abenduaren 3an Kursaalaren afaria egingen dugu. Han izango dira Xabier Euskitze, Maria Mola-tegi, Pantxoa Carrere, Bankako Menditar-
rrak eta joaldunak. Leitzako dantzariak, gaiteroak, musika eskoziarra eta sor-
presa asko egonen dira.

Amerikako diasporarekin ez duzu ezer egin?

Oraindik ez. Deitu didate Argentinatik hasi eta Kanadaraino, Euskal Etxeetan eta hainbat tokitan kanta saioak anto-
latzeko, baina pentsatu beharra dut, ba-
dudalako proiektu pila hemen egiteko. Gustatuko litzaidake beste herrialdeetako musika eta dantza ekartzea, esko-
ziarrak edo irlandarrak, adibidez. Edo
gospel talde bat gonbidatu hemengo-
kin abesteko. Kataluniara ere joan nahi
nuke eta hango eta hemengo kulturak
eta kantak elkartu. ■

VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu

euskara, zure frekuentzian

Gozatu euskaraz liburategietan...

- **ABETXUKU**
Ipuin kontaketa. Lupe Lekuona. Azaroak 12
Kuku, non nago? 11:00; 3-5 urte
Kamishibai, ipuinak bai 12:30; 5-7 urte
Txotxongiloen itzal-antzerkia. Lantegia
Azaroak 30, 18:00; 4-7 urte
- **ALDABE**
Ipuinak dantzan. Apika taldea
Azaroak 12, 11:00; 4 urtetik gora
Xabier Etxaniz Rojo. Idazleekin solasean
Azaroak 16, 19:00; gazte eta helduak
- **ARRIAGA**
Ipuin magikoak. Txotxongiloak. Bihar taldea
Azaroak 18; 18:00; 4-7 urte
Kikili salda. Ipuin kontaketa. Amaroa
Azaroak 30, 18:00; 5-8 urte
- **ARIZNABARRA**
Iraungorriko Marimiri
Itzalezko antzerkia. Zurrunka T.
Azaroak 23, 18:00; 5-10 urte
- **IBAIJONDO**
Egin Putz, fuuuuuuu. Ipuin kontalaria
Azaroak 26, 12:00; 3-5 urte
- **IPARRALDE**
Berdintasuna maite dugulako
Ipuin kontaketa. Inés Bengoa
Azaroak 15, 18:00; 5-12 urte
- **HEGOALDE**
Amodiozko ipuinak
Ipuin kontaketa musikatua
Azaroak 15; 19:00; 14 urtetik gora
- **JUDIMENDI**
Kolare anitzak. Ipuinak.
Antton Aranburu - Sonia Vera
Azaroak 21, 18:30; 3-6 urte
- **LAKUA**
Marixaren baserria. Ipuinak.
Eneko Etxegarai - Eduardo Rodríguez
Azaroak 17; 18:00; 3-6 urte
- **PILAR**
Txotxongiloak egiten. Ludoland. Lantegia
Azaroak 26, 11:00; 4-8 urte
- **SALBURUA**
Atximurka. Ipuinak. Iñaki Carretero
Azaroak 22, 18:00; 1-4 urte

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

Ispilu biluziak ikuskizuna. Edu Zelaieta
Azaroak 23, 19:00
Hitz Adina Mintzo. Katalanera. Jordi Serra
Azaroak 24, 19:30
Eskilarapeko soinuak. Lumi. kontzertua
Azaroak 29, 19:30
“Trantsizioak” Argiaren erakusketa
Azaroak 3-24

EUSKARAREN ASTEAI

AZAROAREN 26TK ABENDUAREN 3RA.

II. Mintzodromo familiarra
Zabalana auzo elkarte
Azaroak 26, Ariznabarreko GE, 10:30-13:30
Mintzodromoa, Jon Maieraren hitzaldia, bertsolariak
Elkarrekin esnatzeko ordua da
Kirmen Uriberen nobela berriaren aurkezpena
Azaroak 29, Oihaneder EE; 19:00
Agiñako zero bat
Manex Agirre - Gaizka Amondarain
Azaroak, 30, Oihaneder EE 19:30

Maite duzun hura,
euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Ongi etorri errefuxiatuak

X. mende hasieran nazioarteko mugimendu sozialista gerraren aldeko eta kontrakoaren artean zatitu zen. Mende bat beranduago gauzak ez dira gehiegi aldatu. 2003ko gerraren aurkako mobilizazioak oso handiak izan ziren. Mundu osoan milioika pertsonak hartu zituzten kaleak Irakeko inbasioaren aurka protestatzeko. Atzean geratu zen Mendebaldeko ezkerren parte handi batek izan zuen jarrera inperialista, 1999an NATOk Jugoslaviaren aurka egin zuen gerra ilegala babestuz.

Ordutik AEBek asko ikasi du. NATOko kideen esku-hartze inperialistak ugaltu egin badira ere, ez dute errepikatu Irakeko akatsa. Nazioarteko legeak hausten jarraitzen dituzte bonbardaketekin eta unean uneko inbasio militarrekin, baina orain kontrolatu nahi dituzten herrialdeen aurkako erasoetan delegaturiko (*proxy*) gerrek irabazi dute protagonismoa. Hamarnaka milaka atzeritarrek borrokatu zuten Libiako estatu soberanoaren aurka eta hamarnaka milaka ari dira Siriako estatu soberanoaren aurka. Qatar, Saudi Arabia, Israel, Turkia, AEB, eta NATOk herrialdeen inplikazioa Ekialde Hurbileko gerretan sekulakoa da, noizbehinka Al Qaeda eta ISIS laguntzen edota zuzenean edo zeharka armatuz. Modu batera edo bestera, Clark jeneralak, McCain senatariak edo Hillary Clintonek ere onartu dute. Ez da berria inperialismo angloamerikarrak muturreko islamismoa erabiltzea, mendeak daramatza hori egiten.

Halere, orain ehun urte bezala, Mendebaldeko ezkerrean jarrera inperialistak hartu du hegemonia. Honen arabera, gure sistema politikoak munduko guztien gainetik daude, gu gara eskubide indibidualak, askatasun zibilak eta demokrazia behar bezala gordetzen ditugunak. Garai batean jaungoikoa edo garapen sozioekonomikoa eramateko



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Mendebaldeko ezkerrean jarrera inperialistak hartu du hegemonia. Honen arabera, gure sistema politikoak munduko guztien gainetik daude, gu gara eskubide indibidualak, askatasun zibilak eta demokrazia behar bezala gordetzen ditugunak. Garai batean jaungoikoa edo garapen sozioekonomikoa eramateko aitzakiapen herrialdeak inbaditu eta kontrolatzea justifikatzen zen bezala, orain ezker hegemonikoak joko bera egiten du demokrazia eta askatasun zibilen mantrarekin

aitzakiapen herrialdeak inbaditu eta kontrolatzea justifikatzen zen bezala, orain ezker hegemonikoak joko bera egiten du demokrazia eta askatasun

zibilen mantrarekin. Kasu batzuetan Mendebaldeko herrialdeetan inperialismoaren propaganda masiboaren abangoardia bilakatu da, frogak eta protagonisten adierazpenak sinetsi gabe eta erasotzaileak eta eraso jasotzaileak (bide batez, nazioarteko legedia hausten ez dutenak) parekatu nahian.

Milaka pertsona batzuk mobilizatu eta bizpahiru astetan armak eta milaka borrokalari lortu ditzaketela sinetsarazi nahi digute, nahiz eta aldi berean sinetsarazi nahi diguten munduko "diktadura lazgarrienetako" batean gertatzen dela hori. Ez da inuzentekeria, kopeta handia dute. Esplika diezagutela bestela nola den posible inperialismo-rik gabe Qatarreko biztanleen aztarna ekologikoaren batez bestekoarekin bost planeta behar izatea eta AEBetako biztanleenarekin lau behar izatea. Hau horrela da munduko baliabideak kontrolatzen dituztelako eta hori lortu ahal izateko herrialde soberanoak suntsitu eta beraien kontrolpera eramateko edozer egiteko prest daudelako.

Hori bai, bitartean kontzientziak lasaitzeko ezkerria "Gerrarik ez" oihutik "Ongi etorriak errefuxiatuak" lelora pasa da. Horrela XXI. Mendeko Caritas berriaren antzera aritzen da, noski, errefuxiatuei behar bezalako harrera egin behar zaie, baina horiek ez dira meteorologiazko fenomeno baten ondorioa, Mendebaldeko herrialdeen eta bere aliatuen estrategia inperialista baten ondorio baizik. Une zehatz batean pobrezia aurre egiteko limosna beharrezkoa izan daiteke, baina ez bada esplikatzen zergatik gertatzen den, eta ez bada borrokatzen egoera iraultzeko, betikotu daiteke. Herrialde bat suntsitzea eta populazioz hustea drama humanitarioa izateaz gain, herrialde horren soberania ostu eta bere garapen sozioekonomiko eta kulturala oztotatzeko biderik eraginkorrena da. ■

Dezepzioa

Errege eta Erregina Katolikoen oinordeko leialena den Felipe Gonzalez dezepzionatuta dago, eta ondorioz, sekulako lurrikara politiko ideologikoa eragin du espainiartasunaren defentsan: estatu kolpe zibila abiarazi du sozialistatik eta *obrerotik* deus ere ez duen alderdian. Idazkari nagusia bota du, eta ideologia nazional sozialista duen alderdia Espainia Handia eta Askearen zerbitzura jarri du politikari ohi onmatopeikoak... Rata-ta-ta-ta!

Santos presidente kolonbiar Nobel Sariduna ere dezepzionatuta omen dabil. Bakearen atzetik buru belarri ibili ostean eta estatuko aparatu mediatikoa alde izanagatik ere, gerra bukatutzat emateko bozketa plebiszitarioan gaitzaile atera da. Eta, gainera, herritarrei eskaini die Bakearen Nobel Saria, kolonbiarrek Gerraren Nobel Sariaren hautua egin eta gero.

Beren burua dezepzionatuta baietz izan, Neguko Jauregia armen bidez eskuratzearren borroka armatuari ekin zioten FARCEko militanteek ere, hauen akta fundazionalan boterea armen bidez eskuratzea izan baitzen, eta ez bakea lortzea armen trukean. Baina konturatu dira armetan dabilen erreferente internazionalik gabe eta nazioarteko komunitatearen onespen barik,



Karlos Gorrindo

IDAZLEA

@kgorrindo

Ez dakit bada, “dezepzio” egoera animikoa den, sentimendua edota emozio soila, sentsazio hutsal edo bonba nuklear suntsitzailea...


ezinezko zaiela boterea eskuratzea, eta hobe dela amaiera duina ematea sufimenari, suizidio kolektiboa onartzea baino.

Dezepzio galanta dute, halaber, ATA sigladun taldexkako jarraitzaileek, garai bateko KAS Alternatibaren bost puntuetatik bat bera ere lortu gabe (Amnis-

tia eta Euskal Herri marxista leninista, demagun), ETAk armak bertan behera utzi izanagatik. Eta are dezepzionatua go daude Ezker Abertzalearen iritzi nagusia garai batean haiek indarrean izan zutenaren guztiz kontrakoa delako. *Marjinalian* bizi behar izateak sekulako dezepzioa ematen bide die.

Ilusioa piztu die, bestalde, Euskadiko Autonomiadun Jose Antonio Agirre lehendakariaren filosofia berreskuratzeko abertzale zein konstituzionalistei, haren kargu hartzearen urteurrenean. Euskal Autonomia Erkidegoa defendatuko zuen gudarostea eta Ertzaintza polizia sortu zituen, muga geografiko “mugatuak” eraiki eta diru euskalduna sortu zuen lehen lehendakari independentistaren asmoak barik, eta zeharkakotasuna eta elkarbizitzaren izenean, sekulako atsekabea eta desengainua hartuko dute abertzaleek Agirre lehendakariaren irudi neutral eta pasibotik haragoko edukian begiratua jartzen ez bazaio.

Honen guztiaren ondorioz, ez dakit bada, “dezepzio” egoera animikoa den, sentimendua edota emozio soila, sentsazio hutsal edo bonba nuklear suntsitzailea... Asepzio soil hori aditze hutsak munduko ilusio eta itxaropenak oro birrindu baino ez baititu egiten, antza. ■



Botilarena



Zigor Etxeburua
KONTSEILUKO TEKNIKARIA
@ZEtxeburua

EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak direla eta, nola dago euskararen botila?

Botila dariola. Euskalduntzearen erritmoa motegia da. Ez da aski urtero, batez beste, puntu erdi eskas haztea euskaldunen multzoa. Kalkulu azkar bat eginez, ohartuko gara ehun eta hirurogeita hamalau urte beharko direla euskalduntze bete lortzeko, azken urteotako hazkundeari eutsiz gero (beste aldagairik kontuan izan gabe, jakina). Erritmo hori biziagoa izan zitekeen euskalduntzen ez duten hezkuntza ereduak baztertuz gero, baina hori da botilak ipurdian duen zuloetako bat. A ereduak kondena bat da.

Erabileraren datuak ez dira etxaferoak jaurtitzeko modukoak ere. Horrelakoetan galdekatuak politikoki zuzena izateko joera duenez, benetan egiten duen erabilera baino hobe aitoritzen du. Horregatik, ez dirudi datu ona denik erabilerak soilik puntu erdia egitea gora, bost urteotan. Horrez gain, inkestak erakutsi du euskararen erabilera atzeraka egiten ari dela, eremu euskaldunenetan, bat etorri UEMAK egindako azterketekin. Harrigarria dena da Jaurlaritzak erlatibizatu nahi izatea apaltze hori. Beste askok, aitzitik, moteltzearen kontzientzia hartu du eta tresnak sortu eta neurriak ezarri ditu, galera gelditzeko eta erabilera bizkortzeko. Botila erdi bete ikustea zilegi da, baina

eskertzekoa litzateke zuloak estaltzeko jarrera tinkoago bat, euskararen botilan zulo handiena eragiten duen Jaurlaritzaren partetik ere.

Botila erdi bete. Ez da euskaldunik galdu eta berriak irabazi dira, katea ez da eten. Euskalduntzea gazteen prozesua izan da, nagusiki, euskarazko hezkuntzari eta euskaltegiei esker. Hurrengo urteotako biztanleria aktiboa euskalduna izango da, berehala. Errealitate horri erantzun behar zaio, dagoeneko, euskalduntzeko pareko erritmoak eta politika eragingarriak ezarri, administrazioaren, hezkuntzaren, arlo sozioekonomikoaren, eta kulturaren eta aisia- ren esparruetan. Euskaldun hartzaileen multzoa ere esanguratsua da eta aukera gisa ikusi behar da. Oraindik euskaldun “oso” ez dela kontsideratzen duenak sentitu behar ditu, gizartearen partetik, euskalduntzen jarraitzeko beharra eta laguntza (mintzakideak, doakotasuna...). Gainera, euskara sustatzearen aldeko herritarren joera nabarmena da, Idoia Mendiaren eta enparauen zorigaitzerako.

Gauzak horrela, euskararen erabilera proaktiboa egiteko edota hizkuntza politika egokiak ezartzeko arrazoiak behar zituenak hortxe ditu, aukeran. Euskararen botilaren zuloak estaltzeko eta euskararen iturria gehiago zabaltzeko ahalmena izatea eta botere hori praktikatzeko kontua. Bada garaia. ■

Oxigeno-poltsak



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Azkenaldian ikusi gabeko beste aita batek esan dizu jatorri atzerriko ikasleek moteltzen dutela gelaren erritmoa. Horregatik erabaki dute guraso batzuek euren seme-alabak beste ikastetxe batzuetan matriculatzea. Aurtun, ikasle horiek Gasteizko beste eskola batzuetan ari dira ikasten, eta, bertan ia “immigrante”rik ez dagoenez, askoz eduki gehiago lantzen ari omen dira. Konfiantza adierazi omen dizunez, beste guraso askok ere gauza bera pentsatzen dute, baina ez dira publikoki ezer esatera ausartzen.

Ikasteko erritmoa moteltzea da, beraz, arazoa. Dibertsitateak dakarren aberastasuna aitortzea

politikoki zuzena izan daiteke, eta polita, ordu batzuetako ospakizunetarako. Izan ere, ikasle batzuen erritmoa moteltzea ez da desiragarria, ez behintzat ikasle horiek geure seme-alabak direnean. Are gutxiago, Jaurlaritzak tipologia bertsuko ikasleak multzokatzeko aukera ematen duenean.

Inor gutxi zalantzan jarriko du eskolak bizi- tzarako prestatu behar duela. Ezta “immigrante”rik gabeko oxigeno-poltsak bilatzen dituzten gurasoek ere. Alabaina, euren seme-alabentzako funtsezko kontu bat utzi dute bazterrean: bizitzarako prestatzeak elkarbizitzarako prestatzea ere badakarrela. ■

Plazan dantzan

Irudi batzuk dantzan jarri zaizkit bu-
ruan, komunitatearen ideiaz gogoeta
egitera naramatenak. Zuekin konpar-
titu nahi ditut hemen irudi eta gogoeta
horiek. Xumeak, egunerokotasunean
kokatuak.


Plaza bat dago zentroan. Izena, ez
dut esango; plaza asko dagoelako eta
bakoitzak nahi duen izena jarri diezaio-
keelako. Plaza honen bueltan, bankuak
daude. Eguerdi aldera hurbiltzen dira
lehenak. Kostata iristen dira haraino
gehienak. Gurrpil-aulkietan hiruzpalau.
Aulki horiek bultzatzen, senarra, alaba,
langile boliviarra. Batek alzheimerra du
hamar urtean, beste batek gaixotasu-
naren lehen ziztadak. Bati hanka falta
zaio, bestea makilaz lagunduta ibili da
oraintsu arte. Batzuk isilik, baten bat
gerrako istorioak kontatzen; honek ez
du entzuten, tarteka begirada galtzen
du hark. Zuek ere ezagutzen dituzue;
beste plaza batean. Ondoen daudenek
(zaintzaile zereginean dauden senideek
batez ere) berbeta dinamizatzen dute,
han egoteari onena ateratzen saiatzen
dira. Ahal dutenean, horretarako inda-
rra dutenean. Eta ez dutenean, beste
norbaitek hartu behar du txanda. Gaur
zuri, eta bihar neuri. Paseoan datoze-
nak edo erosketak egitetik, ile-apain-
degitik, plaza zeharkatu eta hurbilduko
dira agurtzera, bromaren bat edo laz-
tanen bat egitera. Propio dator norbait
bisitan, bonboiekin. Egun batzuetan
norbaite bilobak edo birbilobak
agertuko dira plazan, musuak banatu-
ko dituzte, bostekoak eman bizikleta
gainetik, negarraldi bat egin handik
jaustean. Denok dakizue zer dakarren
horrek plazara.

Ezagutuko duzue plaza, bakoitzak
bere berezitasunak dituen arren. Ho-
rrek, sahats bikote bat eta purpura
koloreko aranondo multzo batez gain,



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

zetazko akaziak ditu eta egun eguz-
kitsuetan plaza osoari itzala emateko
altuera duen aretxa bat. Fruta-den-
da, harategia, arkupetako tabernetan
garajeko kariñoa. Plazaren inguruan
egiten du bizia auzoak. Auzo honetara
bizitzera etorri ziren aitona-amonak
eta komunitate baten kide egin ziren
denborarekin, bertokotu. Harriduraz
azaltzen zuten hori, jatorriz bertakoak
ez zirelako. Ondoko bailaratik etorriak
ziren, ez beste kontinente batetik!

Komunitatea bilatzea bizirauteko
estrategia naturala da. Honetaz ezer
jakin gabe, instintu hutsez, atzerrira
bizitzera etorri nintzenean, komuna
batean sartu nintzen. Hogei heldu eta
hamar bat haurrekin elkar bizitzera.
Kasualitatea? Bai zera! Gaur, auzo-
ko jendearekin hartu-emana bilatzen
dut. Etxe berean bizi direnekin, beste
guraso batzuekin, yogara doazen ema-
kumeekin. Beste batzuk okindegian el-
kartzen dira, bazterreko tabernan, xake
klubean, irakurle talde baten inguruan.
Estrategia naturala izanagatik, ez baita
berezkoa komunitatea. Egin egiten da,
egunetik egunera eta, neurri handi ba-
tean, keinuen eta hitzaren bitartez.

Nire irudiak zuekin partekatuz,
gonbidatu nahi zaituztet komunitate
hitzarekin lotzen dituzuen zuon irudi
pertsonalak gogora ekartzera. Komuni-
tate horrek zer esan nahi duen eta zer
ematen duen pentsatzera. Hain modu
instintiboan egiten ditugun eguneroko
gauza txiki horien kontzientzia hartuz.
Komunitate hitzaren inguruko otoitz
bat proposatzen dut. Eta oharkabean
termino erlijioso bat infiltratu zaidanez,
garai batean komunitateak egituratzeko
horrenbesteko boterea zuen eliza hitza
ere ekarriko dut. Plazatik hurbil, eliza
sekular bat gehituko nioke irudiari.
Hara, euria egiten duenerako. ■

EUSKARAZ DAKITEN
ESTABLEZIMENDUETAN
IRUDI HONEN
ANTZEKO
IKUSIKO DUZU

donastian
ere
euskaraz

eta azaroan
lehiaketa!

INFORMAZIOA
ETA
ESTABLEZIMENDUEN
ZERRENDA:



www.donostiaeuskaraz.eus



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



#ereeuskaraz

Hitzarmenak gehiengo sindikalaren gaineratik?

BLOKEOAREN ARRAZOIAK

Confebaskek, CCOO eta UGTk Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eragin mugatuko hitzarmenak sinatzeko egindako akordioak tentsioa areagotu du sindikalgintzan. Espainiako erreformek estatu mailako hitzarmenei atea ireki, lan-baldintzak kaskartu eta negoziazio kolektiboa blokeatu dute. Egoera hori gainditzeko akordioa omen. Baina desblokeatu al daiteke ezer ELAk eta LABek EAEn osatzen duten gehiengo sindikala bazterrean utzita? Prekariatetari beste mamu bat gehitu zaio beraz lan harremanen esparruan: defizit demokratikoa.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Ezohiko irudi batek alarma piztu zuen joan den uztailaren 14an hedabideetako edizio digitaletan. ELAk eta LABek agerrialdi bateratua iragarri zuten goiz partean. Egun horretan *Berria* egunkariak lan harremanei zegokien albiste-bonba plazaratu zuen filtrazio bati esker: enpresari handien interesak biltzen dituen Confebask patronalak, esku artean zuen bi sindikatuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan osatzen duten gehiengoa saihes- teko "formula". Horren arabera, akordio orokorrik ezean, gutxiengo sindikalarekin adostuko zituen "eragin mugatuko" hitzarmenak, eta -hemen berrietasuna- Jaurlaritzak onetsi egingo lituzke.

Confebaskek ukatu egin zuen agiria berea zenik; Enplegu sailak, bere alde- tik, "bitartekari" lanak baino ez dituela betetzen adierazi zuen. Baina ELAk eta LABek eginiko agerraldian dokumentu

bat erakutsi zuten, Eusko Jaurlaritzak "Elkarrietzeta Sozialerako Mahaira" era- mandako akordio-zirriborroa ei zena. Dokumentu horrek ere eragin mugatu- ko hitzarmenak bultzatzeko estrategia proposatzen zuen: "Jaurlaritzak kon- promiso horrekin bat egin eta era akti- boan kolaboratuko du bere hedapen eta ezagutza orokorrean -zioen testuak-, akordioak bildu eta argitaratuz, Lan- gileen Estatutuaren Legeak eskatzen duen ordezkari mailara iristen ez di- renean".

Hauteskunde bidez lorturiko orde- zkaritza sindikalaren kontrako eraso la- rritzat jo zuten ELAk eta LABek ustez- ko asmo hori, eta Angel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren dimisioa eskatu zuten berehalakoan. Ez zebiltzan oker filtrazioari emaniko ga- rrantzian: handik hamar egunera sinatu



zuten akordioa UGT, CCOO, Confebask eta Jaurlaritzak.

Negoiziak kolektiboan kosta ahala kosta hitzarmena lortzeko xedea EAE- ko patronalak ELA eta LABen kontra darabilen estrategiaren barruan kokatu zuten bi sindikatuok: "Eraso soka luze baten azkena da", zioen LABeko idazkari nagusi Ainhoa Etxaidek.

Lehenago ere Confebaskek demokra- ziaren marra gorriak igarotzen dituen ideia eta asmoak ibili izan ditu buruan oposizioa paretik kentzeko. 2014an EAEko patronalak agiri bat bidali zion Espainiako Estatuko CEOE enpresarien elkarteari, eskatuz sar zezala Lan mi- nisterioaren aurrean helegite harriga- rri bat: sindikatuak gordailutik "baja" ematea euren estatutuetan zehaztutako zereginera ez baziren mugatzen. Conf- ebasken ustez ELA eta LAB "ez dagokien



Irailaren 20an, EAEko bozak baino bost egun lehenago, manifestazioa egin zuten ELA eta LABeko milaka delegatuk Gasteizen. Negoziazio kolektiboan hauteskunde sindikalen emaitzak ez direla errespetatuko salatu zuten.

ELA

izaera” hartzen hasiak daude eta “boikot” dinamika daramate.

Patronalarekiko kritiko diren erakunde sindikalak *de facto* ilegalizatzea zekarren ideia horrek, eta kalapita handia sortu zuen. Confebasketik orduan ere esan zuen ez zuela zerikusirik –gerora CEOEren helegitean jatorri hori nabarmen ikusi zen arren– eta Eusko Jaurlaritzaren beraren iritziz “astakeria” zen. Edonola ere, aferak erakutsi zuen zein puntutan dauden blokeen arteko erlazioak eta noraino iristeko prest egon daitezkeen botere ekonomikoari loturiko ezkutuko eragile batzuk. Baina nola iritsi da sindikatuen eta enpresa-buruen arteko gatazka horraino?

2007an krisia lehertu zenean, finantza-banku erregulatzailerik langileen eskubideak murrizteko baliatu zuten abagunea, European zein Euskal Herrian.

Hala, Espainiako gobernuek urteotan egindako lan erreformek erabateko desoreka ekarri dute negoziatzio kolektiboan; ELAko idazkari nagusi Adolfo Txiki Muñozek astekari honi gordin azaldu dio erreformen ondorioa: “Patronalak ere ez zuen espero hainbeste botere emango ziotenik”.

Espainiako lan erreformak: patronalak joko-arauak poltsikoan

2011ko ekainean José Luis Rodríguez Zapateroren gobernu sozialistak negoziatzio kolektiboa erreformatzeko lege proiektua onartu zuen. Besteak beste ahalmen gehiago eman zion enpresa bakoitzari aurretik adostutako hitzarmenak aldatzeko, sektore-hitzarmenen kalterako. Baina horretaz gain, hemengo lan harremanen esparrua bete betean jo zuen, estatu mailako hitzar-

menak probintziakoei lehenetsiz eta aukera emanez Madrilgo sindikatuei (CCOO eta UGT) eta patronalari (CEOE) erkidegoetan adostutakoa galarazi edo mugatzeko. Hitz bakarrean esanda: estatizazioa.

Eraikuntzaren sektoreko CNC enpresen konfederazio nazionala izan zen lehena mauka profitatzen. 2012ko urtarrilean UGT eta CCOOekin estatu hitzarmena sinatu zuen, beretzat gordez soldatak, mugikortasuna, lan-orduak eta beste hainbat gai garrantzitsu, eta edukiz hustuz euskal langileentzat askoz hobek ziren lurraldeetako itunak; “lan baldintzen homogeneizazioa” zuten helburu. Geroztik halako beste asko etorri dira.

2011ko abenduko hauteskundeetan ondoren Rajoyk ia hatz bakarrarekin ezarritako lan erreforma basatiari azken hamarkadetakoa greba orokor indar-

tsuenarekin erantzun zioten langileek Euskal Herrian. Baina hala ere enpresa-buruek hainbeste desio zuten ultraaktibitatearen amaiera ekarri zuten: lehen, hitzarmen berria sinatu ezean, zaharrak jarraitzen zuten indarrean, iraungita egonik ere; orain, automatikoki estatu mailako hitzarmena edo, halakorik izan ezean, Langileen Estatutua aplikatzen zaie beharginei.

Panorama ilun horretan, sindikatu abertzaleak negoziatziorako tresnarik gabe geratu dira joko-arauak poltsikoan dituen Goliat gorbatahunaren aurrean. Erremediorik gabe ekintza sindikala dute orain habaila, eta kalea konfrontazioarako harri.

Estrategia diferentea dute ordea. ELAk, sektore hitzarmenen ahulezia ikusita enpresetan jarri du indarra. LABek, bere aldetik, hitzarmen orokorrak blindatzeko saiakerak egin ditu hainbat forotan, arrakasta askorik gabe baina: "Patronalak hitzarmen merkeak nahi ditu, eta hori askoz errazago lortzen du Madrilén", dio LABeko negoziazio kolektiborako arduradun Garbiñe Aranburuk. Hitzarmen autonomiko edo sektorialen aldeko ekimenekin segiko dutela ziurtatu du, hala ere, LABeko kideak.

Blokeoa datutan ere zenbatu daiteke. Lan Harremanen Kontseiluaren azken buletin soziolaboralean ikus daitekeen abuztuan langileen ia erdiak (%46,2) oraindik berritzeko zuen hitzarmena, 253.993 lagunek hain zuzen; beste 110.167 hitzarmenik gabe zeuden (%20) eta soilik heren batek (%33,8) zuen eguneraturik bere lan baldintzak arautzen dituen testua, hau da, 185.472 langilek.

Ultraaktibitatearen amaierak zerikusizuzena du estatistika horiekin. 2013ko uztailaren 7an 300.000 behargin geratu ziren hitzarmenik gabe, patronalak enpresa-buruei eskatu zuelako uztailaren 8ra arte ez negoziatzeko, egun horretan indarrean sartu zen Rajoyren erreformak zekarzkie abantailak poltsikoan izateko. Jokaldi horrekin soldata jaitseirak eta baldintza prekarioagoak inposatu ahal izango zituzten.

Lan gatazkak epaitegietara eramatea ekarri du horrek guztiak, hitzarmen askok ultraaktibitatea blindatzeko klausula espezifikoak dituztelako. Auzitegi Gorenaren epaiek lan erreforma nokeatu dute, baina enpresariak hari helduta segitzen dute negoziazio ororen kartak markatzeko.



LAB



ARGAZKI PRESS / ARITZ LOIOLA

Goian, maiatzaren 28an prekaritatearen kontra LABek deitutako "Bideak Batuz" mobilizazioa Bilbon. Behean, ezohiko irudia: Ainhoa Etxaide (LAB) eta Adolfo Muñozen (ELA) agerraldi bateratua, lan hitzarmenetan gehiengo sindikala baztertzeko asmoa zegoela jakin eta gero.

Elkarrizketa Sozialerako Mahaian eseri?

2014ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak "Elkarrizketa Sozialerako Mahaia" jarri zuen martxan, "konfrontazio hutsak etsaia identifikatzeko baino ez du balio", azaldu zuen Enplegu eta Gizarte Gaietarako orduko sailburu Juan Mari Aburtok. Baina mahaia herren jaio zen, LABek eta ELAk uko egin diotelako beraien "ilegalizatzeko azpilanean" ibilitako patronalarekin esertzeari; murrizketak "legitimatze" baizik ez du balio

izango haien iritziz. CCOO eta UGTk, ordea, foro horretan parte hartzeko arrazoiak ikusi dituzte hasieratik "enplegua sortu eta pertsonen ongizatea hobetzea helburu" izaki.

Bi urteko ibilbide gorabeheratsuan Elkarrizketa Sozialerako Mahaia apenas egin du urratsik lan harremanen arloan -CCOO sindikatua bera ere behin baino gehiagotan altxa da mahaitik, Eusko Jaurlaritzak ez dituelako martxan jarri han adostutako neurriak-. Gehiengo sindikal abertzaleak salatu du CCOO

eta UGTren hipokrisia, Euskal Herrian mahai horretan hitzarmen sektoriala defendatzen duten bitartean, Zapateroren erreforma baliatzen ari direlako estatizazioaren bidez negoziazioa Madrileran eraman, monopolizatu, eta baldintza kaskarragoak dituzten itun orokorrak presaka ezartzeko.

Unai Sordo sindikatuaren idazkari nagusiaren ustez, baina, negoziazio kolektiboaren korapiloa ez dago estatuko legeek eta hitzarmenek esaten dutenagatik harrapatuta, baizik eta ELAk –eta neurri batean LABek– hitzarmen kolektiborik ez izateko estrategia “kaltegarria” darabilrelako, konfrontazioa enpresaz enpresa eramateko. Egoera horri irteera emateko sinatu dute, diotenez, eragin mugatuko hitzarmenaren akordioa uztailean.

CCOOk eta UGTk Jaurilaritzarekin eta Confedebarekin negoziazio kolektiboaz egin akordio hori estatizazioa gerarazteko dela ematen du aditzera onartutako testuak, “lurraldeko sektore hitzarmenaren aldeko apustua” egiten baitu. Besterik da zer nolako berme eta baldintza eskaintzen duten. Defendatu

al daiteke euskal lan harremanen esparrua, erabakimena Madrilen baldin badago?

Eragin mugatuko hitzarmenaren akordioak “ez du ezer blindatzen”

Enpresa edo sektore batean aplikazio orokorreko itunik ez balego –eta ikusi dugu asko eta asko egoera horretan daudela momentu honetan–, gutxiengoan dauden sindikatuak patronalarekin lan baldintzak adostu ditzakete, eta langileek hitzarmen horretara gehitze-

» Zapateroren erreformak euskal lan harremanen esparrua bete betean jo zuen, estatu mailako hitzarmenak lehenetsiz probintziakoei. Hitz bakarrean esateko: estatizazioa

ko aukera izango dute. Hori dira “eragin mugatuko hitzarmenak”. Eusko Jaurlari-tzak erregistratu eta argitaratu egingo ditu, izaera ofiziala emanez.

“Zidor antidemokratikoa”, “iruzurra”, “aurrekari gabekoa”... LAB eta ELA sindikatuak hitz oso gogorak erabili dituzte ituna sinatu denetik hura kalifikatzeko. Euren esanetan, langileek botoen bidez aukeratutakoari muzin egiten dio eta gutxiengo baten nahia inposatzen dio gehiengoari.

Irailaren 20an, Eusko Legebiltzarre-rako hauteskundearen kanpainaren erdian Gasteizen manifestazioa egin zuten “euskal langileek modu erabat zilegizkoan” hautatutako ELA eta LABen milaka delegatuk. Amaieran, Muñozek konparaketa ukigarri batekin azaldu zion Iñigo Urkullu lehendakariari nola sentitzen diren: “Baten batek esaten badu zure alderdiaren 27 eserlekuak parlamentuan hutsaren hurrengo direla, ondo irudituko litzaizuke? Ba, hori bera egin nahi dute gurekin”.

Ángel Toña sailburuaren aburuz, al-diz, “maltzurkeria” da akordioa antidemokratikotzat jotzea, langileak indibi-

Kalean da azaroko

aizu!

- Luzaide eta Arnegi eskolan bat eginda
- Mutur Beltz, artea ardiekin
- Joana Itzaina, arin-arin
- Zadorrako urak, kezka iturri
- Etxauzia, euskaldun guztien etxea
- Bizilagunak bazkaritan

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus



ARGAZKI PRESS / JAIZKI FONTANEDA

Uztailaren 22an sinatu zuten Lakuan eragin mugatuko hitzarmenak egiteko akordioa.

Irudian ezker-eskuin: Roberto Larrañaga Confebask enpresarien elkarteko presidentea; Arantza Tapia, Ángel Toña eta Cristina Uriarte, Eusko Jaurilaritzako Ekonomia, Enplegu eta Hezkuntza sailburuak; eta Unai Sordo eta Raúl Arza, CCOO eta UGT sindikatueta idazkari nagusiak.

duaiki batzea eskatzen baitu eta ez dio eragiten sinatzen ez duenari. “Demokrazia parte-hartzea da –dio Toñak– baina baita konpromisoa ere, eta akordioak lortzeko beharrezkoa da irtenbideak aurki daitezkeen foroetara jotzea”. Bere esanetan, hitzarmenik eta erreferentziarik gabe geratu diren 380.000 langileei alternatiba eskaini nahi diete. Raúl Arza euskal erkidegoko UGTko idazkari nagusia ere iritzi berekoa da, hots, langile horien guztien lan baldintzak “eguneratu” ahal izango direla.

Zaila dute ordea gehiengo sindikalak apo hori irenstea: “Akordioak ez du ezer blindatzen –diote ELAk eta LABek elkarrekin egindako balorazio dokumentu zabalean–, Confebaskek ez du bertoko negoziazio kolektiboko markoa blindatuko duen egiturazko inolako akordiorik behar”. Euren esanetan, estatizazioak segitzen du patronalari aukera ematen milaka langileri “xantaia” egiteko.

Ekaitza eta beste lan erreforma bat zerumugan

Eta epe ertainean zer? Ezin esan konponbidea gertu dagoenik, ekaitz hodei trinkoak ikusten dira urrunean. Jadantik hasi dira eragin mugatuko hitzarmenak ezartzen. Araban metalgintzan akor-

» ELAk eta LABek salatu dute sindikatu estataltan hipokrisia, Euskal Herrian hitzarmen sektoriala defendatzen duten bitartean negoziazioa Madrilerara eramane, monopolizatu eta baldintza kaskarragoak dituzten itun orokorrak presaka ezartzen ari direlako

dioa sinatu dute duela gutxi SEA enpresaburuen elkarteak, CCOOk eta UGTk; eta Eusko Jaurilaritzak lurralde horretako aldizkari orokorrean argitaratu du, nahiz eta sindikatu horien pisua %30 ere ez den metalaren arloan.

Euskal sindikatuak, bestalde, euren eskura dituzten tresna guztiak erabiliko dituzte estatizazioari mugak jartzeko. ELAk Europara jotzeko asmoa ere azal-

du du estatu mailako ostalaritza ituna dela-eta. Madrilen sinatutako itun horren klausula batek galarazten du sektoreari dagozkionak beste inon negoziatzea kontrol batzorde baten baimenik gabe, eta ondorioz langileek euren soldataren %50 galdu dute, urteko lanaldia 50 orduz luzatu dieten bitartean. ELAk Estraburgora eramango du kasua, sindikatu bati bere eremuan negoziatzeko ahalmena ukatzea nazioarteko legearen kontra doala uste baitu.

Baina lainorik potoloena beste bat da eta atzean dator. Sindikatuak behin baino gehiagotan adierazi dute kapitalaren botere faktikoak beste lan erreforma bat ari direla prestatzen langileak are gehiago estutzeko. Zantzuak hor dau-de. Esaterako, Garbiñe Biurrun epailearen ustez, Europako Justizia Auzitegiak behin behineko langileen kaleratze merkeak debekatuz emandako epaia “aitzakia” bezala erabiliko dute, lan kontratuen inguruko legea aldatzeko.

Eta batez ere, *Troika* eskean ari da berri. Bruselak azaldu berri du Espainiak 5.500 milioi euro murriztu behar dituela defizit muga betetzeko. Eta ez du ematen, preseski, diru hori aterako denik joko-arauak egiten dituztenen poltsikotik. ■

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II Kongresua II Congreso de Economía Social y Solidaria

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN HEDATZEA
Ekonomia eraldatzeko garaia da!

EL DESPLIEGUE DE LA ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA
¡Es la hora de transformar la economía!

ARDATZAK

- ▶ Ekonomia inklusibo eta demokratikoa.
- ▶ Ekonomia solidarioa izango da, feminista baldin bada.
- ▶ Potentzia eta mugak gaindituz.
- ▶ Ondasun komunak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa.
- ▶ Herritarren bat-egitea eta Ekonomia Solidarioa: egitura kooperatibo zabalak, ESSaren eraikuntzan.
- ▶ Trantsizioak mundu iraunkorrako bateko ekonomia berrietarantz.

www.esskongresua.net
Izena eman ezazu! | ¡Inscríbete ya!

*Ekonomia eraldatzeko garaia da! ¡Es la hora de transformar la economía! És l' hora de transformar l'economia
É hora de transformar a economia C'est l'heure de transformer l'économie! It's time to transform the economy!*

2016ko AZAROAK 10, 11 eta 12 • 10, 11 y 12 NOVIEMBRE de 2016
Bizkaia Aretoa UPV/EHU • BILBAO

Babesten du / Colabora:



Organizan / Antolatzen dute:



Cofinancian / Finantzatzan dute:



SORTU

BIRFUNDAZIOAREN OINARRIAK

Gatazkaren ustezko konponbidearen aparretan abiatu zen Sortu, duela ia sei urte. Gainera, EH Bilduk arrakasta politiko handia lortu zuen lehen urratsetan. Baina aparrak lokatz bilakatu ziren eta, PPren gobernua aurrez aurre, lubakian harrapatua geratu zen izar berria. Hortik dator berfundazioa.



Xabier Letona
@xletona

Arrakastaren ondoren hauteskunde emaitza txarrak ere etorri ziren ezkerreko independentismoan. Hainbat arrazoi tartean, gertuko asko ere urrutiratzen hasi zitzaizkion. Estrategia politiko-militarretik soilik estrategia politikora iragateko jauzia itzela zen, eta ez zuen asmatu horretarako kultura politiko berririk sortzen. Hori da orain birfundazioarekin egin nahi duena. Uztailean hasi zen prozesuan, kongresua egingo du urtarilaren 22an eta Konferentzia Politikoa 2017ko irailean.

34 pertsonak prestatu dute *Zohardia* ponentzia, kongresurako oinarri ideologikoak, ildo politikoa eta antolakuntza eredu finkatuz. ‘Zohardia’ GALEk hildako Josu Muguruzak *Egin*-en erabilitako goitizena zen. “60 urteko borrokaldi oparoaren ondoren”, Sortuk dio herri honen egoera argi gorriak pizteko modukoa dela, “oldarraldi neoliberalaren aintzinean eta tresna burujaberik gabe”, Euskal Herriak atzerapausoak eman dituela hainbat alorretan. Herri honen pulstua motel nabari du, baina aldi berean, Euskal Errepublikaraino iristeko baldintzak ere sumatzen ditu. Ondorengo lerroak ponentzietako testuetan oinarritzen dira, baina ez dira haien laburpena, doinu zahar eta berrien arteko kontraste txiki bat baino, Sortu berriaren melodiaz irakurleari hainbat pista emango dizkiola pentsatuak.

Abian. Sortuk, LABek eta Ernaik egin-dako hausnarketa prozesua izan zen eta martxoan bukatu zenean, Ezker Abertzalearen birfundazioa agindu zuen. Sortu egiten ari da berea eta Ernaik eta LABek ere egin beharko dute haiena.

Sorturen izaera. Iraultzailea, alderdi-mugimendua, demokrazia armonikoa-ren aldekoa, konfederalista, sozialista, azterketa sozialerako marxismoa darabilena, abertzalea eta internazionalista, feminista, nazio mailakoa, euskalduna.

Euskal Errepublika. Bere eraikuntza egungo errealitate instituzionaletik abiatzen da eta hiru lurralde-esparru ditu: EAE, Nafarroa eta Iparraldea. Egunerokotasunean harremanak estutzeko lana egingo da, baina bakoitzak bere erritmoa eramango du Euskal Errepublikan bat egin arte.

Eredu konfederala. Konfederazioaren gaia beti ibili da dantzan Ezker Abertzalearen testu politikoetan. Aralarrek bere egin zuen sortu zenean, EH Bilduren *Euskal Bidean* ere agertzen zen 2013an eta orain Sortuk ere bereganatu du. Bi norabidetan: batetik, lurraldeen arteko harreman politiko-instituzionalari dagokiona eta, bestetik, “tokikotasuna estrategikotzat joz botere politikoaren



birbanaketa helburu duen praktika politikoari dagokiona”.

Herritarren batasuna. “Sortu ez da Herritar Batasun berria”. Sorturen ustez eginkizun hori EH Bilduri eta EH Bai dagokie. Haiek dira protagonistak hedabideetan eta mobilizazioetan. Independentziaren bidean Fronte Zabalo baten beharra ere ikusten du, indar politikoez gain, indar sozialak eta sindikalak ere bilduko lituzkeena. Areago, eraldaketa prozesuek, are zabaloak diren indarren lankidetzaren beharko dutela azpimarratzen da, eta hor kokatzen du Nafarroan aldaketaren aldeko lau indarren gobernu akordioa”. Sorturen ustez, EH Bildu eta Sorturen dinamika ez da behar bezala bereiztu azken urteetan, eta aurrerantzean argi bereizi behar da.

Abangoardiari ez. ETA, KAS eta Ekinen izaera abanguardia zalea izan da. Haiek finkatutako helburu eta lerro politikoetan egiten zuen gero bidea ezker abertzale osoak. Orain, EH Bildu, EH Bai eta Fronte Zabala eraikitzen laguntzea da Sorturen eginkizuna, “baina hori guztia egitea tentazio oro-zuzendari, abangoardista eta/edo uniformizatzaile orotatik at”. Hainbatetan egiten zaio erreferentzia ideia honi. Burujabetzari buruz, esaterako: “Sorturi ez dagokio

Nafarroako Sortuk urriaren 1ean Berriozarren egindako ekitaldia berfundazioaren berri emateko.

ARGAZKI PRESS



bide orri itxi bat aurkeztea (...) Prozesuaren martxa ezin da eliteen arteko akordio aukeren arabera izan. Aitzitik, aintzindaritzaz gizarite zibil antolatuari dagokio". Baita militantearen figuraz ari denean ere: "Lider lemazainaren garaia iraganeko kontuak dira".

Zaharra eta berria. Ezker abertzalearen "azken 60 urteko borrokaldia" gorai-patzen du -"biziraupenerako baldintzak sortzea izan da ziklo horren ekarpen historikoa"- baina, "akats historikoa litzateke pentsatzea burujabetza fase berri honetan agortutako tresna, oinarri eta formulen bidez aurrera egin litekeenik". Molde bereko aipamenak ugariak dira, adibidez: "Hunkigarriak ez izateaz gain, sistemarekin apurtzen ez duten mobilizazioen inertzia hautsi behar da", "ezetzaren kulturatik sormenaren kulturara igarotzeko urgentzia dugu", "erresistentzia nortasuna gainditu eta egitasmo nortasunerako jauziaren beharra" edo "jite abangoardistak baztertu eta lidergo demokratikoan oinarrituriko praktika politikoan trebatu beharra".

Alderdi-mugimendua. "Sortu ez da ez alderdi ez mugimendu. Biak batera da, halere: mugimendu ez konbentzional bat, alderdi forma eta mugimendu ezau-

garriak dituen". Sortuko militanteak parte hartu behar du alor anitzeko gizarite mugimendu, elkarte eta erakundeetan, ez hauek zuzentzeko baizik eta Sorturen helburuak lortzeko ezinbestekoa delako partehartze hori.

Europar Batasuna. "Gaur egungo Europar Batasuna proiektu antidemokratiko eta antisozial bat da" baina "Euskal Estatua EB horretan sartzea nahiz at gelditzea" erreferendumez erabaki beharko lukete euskal herritarrek.

Herrigintza soziala eta komunitarioa. "Herrigintza soziala deritzogu jendarte berriaren eraikuntzan diharduten herri mugimenduen ekimenari (...) Herrigintza espresio honen adibide jator ugari ezagutu ditugu azken urteetan: Gora Gasteiz, fracking-aren kontrako mugimendua, herri harresiak, Gipuzkoa Zutik, mugimendu feministak egindako ekimen andana, errefuxiatuen aldekoak etab.". Herrigintza komunitarioa da "herri eta auzoak subjektu eratzaileztat hartzen dituen proiektugintza. (...) Azpimarratzekoa da EH Bilduk azken urteetan garatu duen udalgintza".

Prozedurak. Hauteskunde primarioak egingo dituzte eta parte-hartze telematikoa bideratuko du. Kongresuaren eta

konferentzia politikoaren fase hauetan, nahikoa izango da Sorturen orrialdean izen ematea, ondoren prozesuan eta zuzendaritza berriaren hautaketan parte hartu ahal izateko.

Iritzi korronteak. "Sortuk onartzen ditu bere baitan iritzi-korronteak, baina beti ere garbi utzirik ezen hala izateak ez diola automatikoki iritzi-korronte bati eskubiderik ematen zuzendaritza-organismoetan ordezkartitza-kuotarik izateko".

Militantzia. "Ez badugu lortzen erakundeak beste era batera funtziona dezan, nekez lortuko dugu beste era bateko militanteak eta pertsonak sortzea. Erakundea (hots, militanteok, gu geu baizik, lehen eta azken finean, hura eratzen dugunok) ezin da izan jendea txikitzeko makina bat".

Epeak. Azaroak 5-26, ponentzien eta zuzendaritzaren hautaketa; azaroak 27-abenduak 10, zerrenda irekien bidez nazio eta lurralde zuzendaritzaz beste-ko ardurak proposatzeko, eta emendakinek aurkezteko epea. Urtarrilak 9-22, ponentziei egindako emendakinen eztabaida eta zerrenda irekien hautaketa, urtarrilaren 22ko kongresuarekin amaituko da. Urtarriletik irailera, Konferentzia Politikoaren etapa egingo da.

MIREN ZABALETA:

"GARAI BERRIRAKO POLITIKA BERRIA BEHAR ZEN, HORI EZ ZUEN BEHAR BESTE HAUSNARTU EZKER ABERTZALEAK"

Miren Zabaletarekin (Iruñea, 1981) mintzatu gara 35 urte bete dituen egunean. Bateragune auzia dela eta sei urte egin ditu espetxean –iazko urrian ateraz en– eta orain Sorturen birfundaziorako zuzendaritza taldean dago.

Sorturen zeregin nagusietakoa Ezker Abertzalea dinamizatzea da. Nor da ezker abertzalea gaur egun Sorturentzat?

Ezker abertzalearen proiektu historikoarekin bat egiten duena. Herri honetako independentista, aurrerakoi eta ezker zale guztiek badugu aliantzarako espazio bat: EH Bildu eta EH Bai. Aralarrekin, esaterako, hor egin dezakegu topo.

Hitz egin al duzue Askatasunaren Bidean eta Eusko Ekintzarekin?

Batzuekin aritu gara eta beste batzuekin egotea ere gustatuko litzaiguke. Esan bezala, gure ustez EH Bildu eta EH Bai izan beharko lirake halakoekin konfluentziarako espazioak. Euren burua independentista eta ezkertiarzat duten eragileekin beharrezko harremana izango du Ezker Abertzaleak.

Sortu eta bost urtera birfundatu behar da Sortu. Zer egin du gaizki?

Euskal Herrian zabaldu den ziklo politiko berrian jarraitzeko urratsak eman eta anbizioari eustea Sorturen lorpenak dira; horretan asmatu zuen. Garai berriari ekiteko politika berria behar zen eta hori ez zuen behar beste hausnartu Ezker Abertzaleak, hori izan zen akatsa eta horrek eraman gaitu birfundaziora.

Txostenean diozuenez, ezker abertzalearen komunitatean Sorturen konfiantza eta sinesgarritasuna ukituta geratu dira. Zergatik?

Ezkertiarrak, independentistak eta ezker



XABIER LETONA

"Ezkertiarrak, independentistak eta ezker abertzalekoak diren sektore eta pertsona askorentzat Sortu urruneko erreferentzia bilakatu da"

abertzalekoak diren sektore eta pertsona askorentzat Sortu urruneko erreferentzia bilakatu da. Guk, aldiz, horiei guztiei erakutsi nahi diegu Sortu haien tresna eragin-korra izan daitekeela.

2011n gatazkaren konponbidea bere jardun politikoaren lehen lerroan jarri zuen Sortuk eta emaitzak txarrak izan ziren. Orain bestela jokatu nahi da, baina zein leku izango du gatazkaren konponbideak praxi politiko berrian?

Lehentasunezko esparrua izango da, bai

na lehentasun hori prozesu soberanista eta independentista orokorrako baten baitan kokatuko dugu. Autokritika argia izan da: gatazkaren ondorioak etengabe lehen lerroan jartzen baditugu, Estatuari gure jarduna baldintzatzeko giltza ematen diogu. Gatazkaren ondorioen eremua desblokeatzeko baldintzak herri honetan lortu beharreko akordioetan daude eta, bereziki, prozesu burujabe-independentista garatzeko nora-bide horretan.

Euskal Errepublikari nahi duzue 2026rako, baina galdera ikurra ere jarri diozue datari.

Gure ustez herri honetan badira baldintzak prozesu independentista abiarazi eta helmugara eramateko. Horregatik, data jartzea garrantzitsua zen, independentziaren gaia *sine die* luzatzen den gogoeta gisa utzi gabe. Galdera ikurra esan nahi du lehenago edo geroago izan daitekeela, baina denbora erronka horrek laguntzen du eman nahi zaion irismena, abiada eta dimentsioa ematen.

Bateraguneko kide izateagatik sei urteko kartzela zigorra ordaindu diozue Estatuari. Ezker Abertzalearen barruan ordaindu behar izan duzue bidesaririk?

Ez. Ezker abertzaleak egindako estrategia aldaketaren aurpegi-ikonoak bilakatu gara, bereziki Arnaldo Otegi, baina *Zutik Euskal Herria* milaka militanteren artean egindako bide eta erabakia izan zen. Niretzat ohore handia izan da, nahiz eta, beste hainbat euskal militantek bezala, espetxean larrutik ordaindu genuen. ■

Carmen Marin [Opusen garbitzaile aritua]



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Eñaut Agirrebengoa

“Nire bizitzako hilabeterik txarrenak pasa nituen Opusen lanean”

Carmen Marin Ortega dut izena, Iruñean bizi naiz, eta duela urte batzuk langile bezala inoiz izandako esperientzia txarrena izan nuen Nafarroako Opusen. Bertako departamentu batean garbitzaile aritu nintzen, eta han bizi eta ikusitakoa ez dut inoiz ahantziko.

Garai hartan etxeko langile nenbilen, eta sos aldetik ez nuen beste lan baten beharrik. Halere Opusen garbitzaile hasi nintzen, ziurtatu baitzidaten bertan jardunda nire seme-alabek doan ikasi ahalko zutela. Teorian, egoera berriak ezauzgarri positibo ugari zuen: beste soldata bat, abagune paregabea seme-alabentzat... Alabaina, iritsi bezain pronto hasi nintzen hartutako erabakiaz damutzen. Lehenengo egunean bertako langileak ez agurtzeko esan zidaten, inolako ziorik eman gabe. Ez zuten garbitzaileok gure presentziaren berri ematerik nahi. Gainontzekoentzat ez ginen existitzen; ikusezinak ginen guztiz.

Gainera, lankideok ezin genuen elkar lagundu. Hori ez zidaten zuzenean agindu, baina denboraren joanean agerikoa egin zitzaidan. Kasurako, behin, nire eginbeharrak jada amaituta nituela lankide bati zoru-garbigailuaren ontzia betetzen hasi nintzaion, eta errieta egin zidaten, ezin nuelako halakorik egin.

Horretaz landa, garbiketa saileko arduradunak salatari bana zeukan talde guztietan. Arduradunak berak aitortu zidan. Garbitzaileak erabat kontrolpean geunden. Egiten genuen gauza ororen berri zuten nagusiek. Beste leku batzuetan ez dakit garbitzaileekin hala jokatzeko den, baina niri behintzat beldurgarria iruditu zitzaidan salatarien sistema.


Egunero urduri joaten nintzen lanera, presiopean baikeunden etengabe.

Egoera horretan oso zaila zen gainontzeko garbitzaileekin harreman ona edukitzea; lehia bizia zegoen gure artean. Kontratu mugagabea zuten garbitzaileen eta aldi baterako kontratua zutenen artean sumatzen zen bereziki. Ni bigarren multzoan nengoen, eta besteek gure kontra egiten zuten nabarmen, mehatxu gisa ikusten baikintuzten.

Nire ustez lan-giro petral horren atzean Opusen mentalitate eta lan egiteko molde dago. Presio eta estres egoera hori beste departamentu batzuetan ere bazegoen. Esaterako, nire ezagun bat mantentze-lanetan aritu zen eta nazka-nazka eginda amaitu zuen hark ere.

Bertan emandako hilabeteak sekulako amesgaiztoa izan ziren niretzat. Azkenean lana utzi behar izan nuen. Halako sufrikariorik ez dut beste inon pairatu. Etxeko langile bezala esperientzia hagitz onak bizi izan ditut, nahiz eta sektorearen egoera oso makurra izan.

Behin garbitzaile lana utzita, kexa jarri nuen CCOO sindikatuari. Gertatu zitzaidana kontatu nien, egoerari konponbidea aurkitzeko itxaropenez. Alabaina, Opus harresi handi bat zela besterik ez zidaten esan. Aukera bakarra gelditu zitzaidan: gertaturikoa atzean utzi eta aitzinerat egitea. ■



SALAKETA, GARAIZ

Komenigarria da jazarpena pairatu duten langileek lana utzi aurretik jartzeari salaketa, hala egin ezean oso zaila izaten baita lekukoak aurkitu eta erakunde ofizialek neurriak hartzea, edota sindikatuen babesaren lortzea. Jazarpen kasuetarako LABek duen protokoloak urrats hauek jasotzen ditu:

1. Langileak baja hartzea, psikologikoki gaizki badago.
2. Bere medikuak osasunaren zaintza zerbitzuaren protokoloa martxan jartzea.
3. Nafarroako Lan Osasunaren Institutuan informe bat egiten diote langileari, eta ondoren enpresak kontratatuta duen osasunaren zaintza zerbitzuak kasua aztertzen du.
4. Ikerketak eta txosten psikologikoak erakusten badute langile horrek jazarpena sufritu duela, hainbat neurri hartuko litateke, Laneko Ikusatzailetzan salaketa jartzea, esaterako..

ETXERIK GABEKOEN BORROKA SAO PAULON: **OKUPAZIOA**



Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten *Era o Hotel Cambridge* (Cambridge Hotela zen) filma, etxerik gabeko 700 lagunek okupatu zuten hogeai solairuko hotel abandonatuari buruzkoa. Etxe okupatuetan 4.000 familiatik gora bizi dira Sao Paulon eta hango herri mugimenduen borroka esparru indartsuenetako bat da.



Lander Arbelaiz Mitxelena
@larbelaiz

“Zorte handia da dokumentalaren eta fikzioaren arteko film hau Donostiako Zinemaldian aurkeztea, baina zorte handiagoa da nire alboan emakume hau izatea: Carmen Silva Ferreira. Ez bada-kizue zein den, Brasilgo etxebizitzaren aldeko borrokaren benetako liderretako bat da, oso errespetatua”, dio zuzendaria protagonista nagusia aurkeztean.

“Ikusiko duzuen filma Brasilgo erreallitatearen isla da, milaka lagun bizi dira kalean, fabelak hazten doaz hirien kanpoaldean, eta aldi berean milaka etxe eta eraikin huts daude abandonatuta hiriaren erdialdean –goxo eta tinko hitz egiten du Silvak-. Sistema oso injustua da ordea, Sao Paulon bertan adibidez, gobernuak etxe hauek babesten baititu, bertara sartzen den jendea berriz ere kalean utziz legearen izenean. Etxebizitza hauek abandonatu eta zergetan estatuari dirutza zor dioten jabeen morroi lana egiten du estatuak; ez du zentzurik”.

1980ko hamarkadatik etxebizitza eskubidearen aldeko mugimenduak kalean lanean aritu diren arren, arazoaren larria ikusita, mugimendua bateratu eta

Karin van der Worp

“Nola liteke enpresek esatea langile berrien ingeles maila ez dela nahikoa, 4 urterekin hasten zarete eta ikasten?”

EHUn, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean, aurkeztu zuen doktorego tesia ekainaren 22an ondoko izenburuarekin: *Multilingualism in the workplace: the voice of professionals* (Eleaniztasuna lantokian: profesionalen ahotsa). Van der Worp herbeheretarrak uste zuen, “herri elebiduna izanda” euskara eta gaztelania, biak erabiliko zirela enpresetan. Ingelesak ere harrituta utzi du: txikitatik ikasi bai baina lantokietan ez daude gustura langile berriek duten ingeles mailarekin.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Nazioartean lan egiten duten Euskal Herriko 14 enpresatan (batik bat Gipuzkoakoak) manager diren 25 pertsona elkarrizketatu ditu, lantokian hizkuntzak nola kudeatzen dituzten eta hortaz zein iritzi duten jakiteko. EHuko Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultateko 194 ikasleri galdetegia pasa die lanean aurkituko dituzten hizkuntzei buruz. Euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana eta txinera hartu dituzte kontuan. Karin van der Worp (Hattem, Herbehereak) duela hiru urte eta erdi etorri zen Euskal Herrira tesia egitera. Besteak beste, nederlandera, euskara, ingelesa eta gaztelania hitz egiten ditu.

Zer aurkitu duzu enpresetan?

Profesional eleanitzen jarrera oso positiboa da, ahal den hizkuntza gehien erabiltzea nahi dute, baina oso zaila iruditzen zaie. Gaztelania eta euskara dauzkate. Euskara ez dute lankide guztiek menperatzen eta gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen da enpresetan, batik bat testuinguru formalean. Bilera orduan norbaitek ez badaki euskaraz dena gaztelaniaz egiten da. Oso arrunta da gaztelaniaz egitea.

Egia da oso enpresa desberdinak ikusi ditugula. Enpresa batean den-dena euskaraz egiten dute, konpromisoa hartu dute lana euskaraz egiteko, bai lankideen artean bai kanpora begira. Beste enpresa batean adibidez dena gaztelaniaz egiten dute. Esaten dute gaztelaniaz denok ulertzen dugula eta euskara erabiltzeak aparteko kostua duela. Bi muturrak dira, gehienak tartean daude, hizkuntza biak erabiltzen dira, gaztelania euskara baino gehiago. Euskara gehienbat lankide artean erabiltzen da.

Ingelesari buruz zer iritzi dute?

Ingelesa da gehien erabiltzen duten kanpoko hizkuntza, nahiz eta badakiten hobe dela bezeroaren hizkuntza jakitea. Ingelesari dagokionez, kezkatuta daude, enpresara datozen langile berriek maila nahikoa ona ez daukatela uste dute.

Enpresen iritziak, hezkuntza sistemak ikasleak ez ditu prestatzen hizkuntzak erabiltzeko. Batetik, diote ikasleek ingelesean lortzen duten maila, nahiz eta txikitik hasi ikasten, agian egokia dela oporretara joateko Londresera, baina lana egiteko ez. Bestetik, bitxia da, lehen frantsesa garrantzitsua zen hezkuntzan,

orain ia erabat ingelesa ematen dute. Enpresak kezkatuta daude, merkatu oso hurbilekoa delako eta geroz eta gaitasun gutxiago daukagulako frantsesez. Ideologikoa ere bada, Euskal Herrian hiru hizkuntza daude, baina ingelesak hartu du funtzio garrantzitsua.

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikasleei galdetegia betetzeko eskatu diezu. Zein iritzi dute euskarari buruz?

Iritzia aldatzen da kontuan hartuta euskara menperatzen duten ala ez. Euskara menperatzen duenak dio hizkuntza garrantzitsua dela etorkizunean lanpostuan erabiltzeko, euskara ez dakienak berriz, ez dio garrantzi handirik ematen. Baina bitxia da nola euskara ziurtagiriak ateratzeko orduan, ama hizkuntza gaztelania dutenek ziurtagiria edukitzeari garrantzi handiagoa ematen dioten. *Titulitis* ezaguna agertzen da, uste dute enpresek baloratzen dutela ziurtagiria edukitzea.

Ikasleek ama hizkuntza zein duten, euskarari ematen dioten garrantziak alde batera edo bestera egiten du, baina ez da hain zuri edo beltz. Batzuk euskara ez dute ama hizkuntza, gero ikasi

dute, eta horiek gero eta gehiago euskaldunek bezala pentsatzen dute, garrantzia ematen diote euskarari.

Niri arreta eman dit enpresek kontratatzerakoan gaztelania inoiz ez eskatzeak, jakintzat ematen da. Enpresa askotan ingelesa eskatzen dute, euskara ez, eta baldin badakizu balio erantsia da. Hor desoreka bat dago.

Nola hautematen dute ingelesa?

Garrantzi handia ematen diote ingelesari. Nazioarteko enpresetan ingelesa erabili beharko dutela pentsatzen dute ikasleek, baina uste dute ez daudela ondo prestatuta. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hainbat ikasgai ingelesez eman dituztenak besteak baino hobeto prestatuta daudela sentitzen dira.

Eleaniztasun maila kontuan hartu eta hizkuntzen garrantziaz galdetu diezue.

Aldagai bakarra ez baita ama hizkuntza zein duten. Ikusi nahi genuen ea nola aldatzen den haien ikuspuntua daukaten eleantiztasun maila gora doan neurrian. Zenbat eta eleantizagoak orduan eta hizkuntzekiko jarrera positiboagoa dute.

Zenbat eta eleantiztasun gutxiago orduan eta interes gutxiago?

Demagun: ikasleak gaztelania baino ez daki, ez du ahaleginik egiten beste hizkuntzak ikasteko, ez dio garrantzirik ematen. Bitxia da kontu hau ere: ikasleen eleantiztasunaren maila neurtzerakoan hiru hizkuntzak hartu ditugu kontuan zeren frantsesez, txineraz eta alemanez oso gutxi dakite. Eta beste kontu bat, zenbat eta eleantizagoa orduan eta pertzepzio hobea du euskarari buruz. Interesgarria irudit zaigu. Zeren kezka hori badugu, mundu globalizatu honetan zer gertatuko den euskararekin.

Tesiaz galdetu dizut orain arte. Zu Herbehereetako zara ordea, eta gure errealitatea guk ez bezala ikusiko duzu.

Oso interesgarria da. Zuena eskualde elebiduna da, nazioartekotzen ari dena. Ingelesaren gaiak arreta eman dit. Enpresetan egindako elkarrizketetan esaten zidaten: "Zuek txikitatit oso ondo hitz egiten duzue ingelesa", baina ez da horrela, ni 11 urterekin hasi nintzen, nahiz eta orain lehenago hasten diren. Badirudi hemen ingeles maila ona lortzeko arazoak dituzuela.



Harritzen nau maila ona lortzeko ezinean ibiltzea. 4 urterekin hasten dira ikasten, akademiara joaten dira... Nola liteke ikasleak enpresetan ingelesa erabiltzeko seguru ez sentitzea eta enpresek esatea ingeles maila ez dela nahikoa? Ikasteko gogo handia dago, jarrera oso positiboa da, baina zer falta da maila hori lortzeko? Enpresako batek zera esan zuen: "Ez badugu maila ona lortzen ingelesez nola moldatuko gara frantsesa, alemana... ikasteko? Egia da ikasleek galdetu egin diegula haien ingeles mailaz. Ez dakigu haien ingeles maila uste dutena baino hobea den ala ez.

Jakinda gurea gizarte elebiduna dela zer espero zenuen aurkitzea enpresetan?

Euskal Herrira etorri baino lehen, ezer jakin gabe euskarari buruz, herri bat eta bi hizkuntza nituen buruan, pentsatzen nuen toki bera izango zutela bi hizkuntzek. Baina etorri eta gero ikusi dut zenbat jende den elebiduna, zenbatek egiten duen gaztelaniaz soilik. Ez da beraz guztiz elebiduna, herria elebiduna da, baina jende guztia ez. Horrek harritu ninduen. Orain ikusi dut enpresetan euskarari tokia emateko lan handia egiten ari direla. Poz handia ematen dit kontzientzia hori egoteak. ■



2013ko apirilean 1.127 pertsona hil ziren Dakhako (Bangladesh) eraikin hau behera jausi zenean.

Hainbat transnazionalentzat arropa egiten zuten lau fabrika zeuden bertan, eta inork ez zuen neurririk hartu eraikinean arrakalak agertu zirenean.

THE JAPAN TIMES

GIZA ESKUBIDEAK ETA TRANSNAZIONALAK: NAZIOARTEKO ARAUDI LOTESLEAREN BILA, URRATS TXIKIZ

Joan den astean amaitu zuen bigarren lan saioa enpresa transnazionalen giza eskubideekiko erantzukizuna finkatzeko zeregina duen NBEko lantaldeak. lazkoak bezala, adituei entzun eta informazioa jasotzea beste helbururik ez zuen aurtengoak, datorren urterako nazioarteko hitzarmen lotesle baten zirriborroa prestatze aldera. Biltzarrean aditu modura parte hartu duen Juan Hernandez Zubizarreta EHuko irakasleak azaldu digu NBErengandik zer espero daitekeen, eta herri mugimenduak zer eskatzen duen.



Unai Brea
@unaibrea

2014ko ekainean, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Giza Eskubideen Kontseiluak –47 estatuk osatua–, Ekuador eta Hegoafrikaren proposamen bat aintzat hartuz, ezusteko erabakia hartu zuen: giza eskubideen alorrean enpresa transnazionalak duten erantzukizuna arautzeko Gubernuen Arteko Lantalde bat eratzea. Zehazki, nazioarteko itun lotesle bat proposatzea da lantalde horren eginkizuna.

Ohi bezala, Genevan (Suitza) egin zuen bilera Kontseiluak. Bitartean, kanpoko aldean, gizarte zibileko ehunka kidek Herrien Epaitegi Iraunkorrean parte hartu zuten, estatuetakordezkarien erabakian eragin nahian. Urrats txikia izanagatik, pozez hartu zuten albistea, ordura arte nagusi zen joera hautsi baitzen. “Transnazionalei buruz hitz egiteko garaian”, azaldu zuen orduko hartan



THE GUARDIAN

Juan Hernandez Zubizarreta nazioarteko zuzenbide irakasle eta Herrien Epaitegi-ko kideak, “NBERen logika arau bigunen logika izan da, enpresa-etikaren barruko erantzukizun korporatiboaren logika, norberaren borondatearen arabera”. Hitz lauz esanda, zigorrik ekar lezakeen arau loteslerik ez, eskerrik asko.

Giza Eskubideen Kontseiluak onartutakoaren arabera, lantalde berriak adituei entzun eta gaiari buruzko informazioa biltzeko erabili behar ditu lehen saio biak, alegia, 2015ekoa eta 2016koa. Etapa hori joan den astean egindako bileran amaitu zen, eta hurrengo pausoa, 2017an, nazioarteko hitzarmen baten zirriborroa aurkeztea eta ezbaidatzea izango da.

Ezin igarri noizko adostu litekeen itunaren behin betiko testua, NBE oso biorritmo geldoko erakundea baita, eta azkean indarrean sartuko den ere ez dago ziurtasun osoz esaterik, besteak beste erresistentzia handiak daudelako NBEko Giza Eskubideen Kontseiluan bertan. Estatu aberatsenak (AEB, Japonia, Europar Batasuneko guztiak...) Gobernuen Arteko Lantaldea sortzearen aurka bozkatu zuten. Txina eta Errusia izan ziren aldeko

botoa eman zuten potentzia bakarrak, “seguruena geoestrategia arrazoiengatik”, Hernandez Zubizarretaren iritziz.

Inpunitate sistematikoaren aurka

“Ez dakigu lantaldeak aurkeztuko duen zirriborroak noraino egingo duen bat gure eskariekin”, azaldu digu EHUKo irakasleak. Batetik, herri mugimenduko ordezkari joan da Hernandez Genevara, Dismantle Corporate Power (Korporazioen Boterea Eraitsi) nazioarteko kanpainaren kide gisa. Baina aurren ofizialki ere parte hartu du Kontseiluko bileran, gonbidatutako aditueta bat izan baita.

“Gaur egun, eta horixe esanez hasi nuen nire agerraldia, transnazionalen inpunitatea sistematikoa da”, dio. “Botere izugarria dute, botere politikoa, ekonomikoa, mediatikoa eta juridikoa. Azken horri dagokionez, arrazoia da desoreka handia dagoela transnazionalen eskubideen eta betebeharren artean. Lehenbizikoak babesten dituen zuzenbidea gogorra da, eta betearazi egiten da. Aldiz, haien betebeharrak giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak arautzen ditu, eta zuzenbide hori ahula da”.

Adibide bat: Lanaren Nazioarteko Erakundeak umeen lanaren aurkako hitzarmena izan arren, estatu batek onar dezake adin batetik gorako haurrek lan egitea, eta bertan ari den transnazionala horretaz baliatzea daiteke estatu horretako legedia urratzen ez duen bitartean, nazioarteko zuzenbideak ez baitio eragozten.

“Nazioarteko zuzenbideari hortz-haginak falta zaizkio”

Dismantle Corporate Power kanpainak eskatu du, hain zuzen ere, NBEk proposatu behar duen itunak transnazionalak behartzea, une oro eta dauden herrialdean daudela, nazioarteko zuzenbidea errespetatzera, tokian tokikoa ez ezik. “Horrez gain, uste dugu, eta hau oso garrantzitsua da guretzat, hori guztia betearaziko duen auzitegi bat sortu behar dela”, dio Juan Hernandez Zubizarretak; “izan ere, aditu askok esaten duten bezala, nazioarteko zuzenbideari hortz-haginak falta zaizkio, ez du hozka egiten. Oso hitzarmen onak eduki ditzakezu, baina betearaziko duen organorik ez badago ez du askorik balio”. Edozein kasutan, mota horretako nazioarteko auzitegi bat

sortzea oso helburu zailtzat du irakasleak, “ez baita batere erraza izango estatuek halako zerbait onartzea”.

Ezaugarri horiek dituen auzitegirik sortzen ez den bitartean, zuzenbidean estraterritorialitate esaten zaiona erabil liteke transnazionalak giza eskubideei egindako urraketak salatu eta epaitzeko; Dismantle Corporate Power kanpainaren beste eskarietako bat da hori. “Estraterritorialitateak lekarke edonork salatu ahal izatea transnazional bat, ez eskubide urraketa gertatu den herrialdean bakarrik, baizik eta transnazional horrek egoitza nagusia duen tokian”, azaldu du Hernandez Zubizarretak.

2013ko apirilean Bangladesheko hiri-buruan, Dakhan, 1.000 pertsona baino gehiagoren heriotza eragin zuen eraikinaren erorketa ekarri du gogora irakasleak. Eraikinaren egoera tamalgarririk eragin zuen ezbeharra; arrakala handiak agertu arren, langileek bertan jarraitu zuten, hainbat transnazionalentzat arropa egiten. “Enpresa horietako bat El Corte Inglés espainiarra da; bada, estraterritorialitatearen neurria ezarriko balitz aukera legoke, gaur ez bezala, Bangladesheko gertakariak direla-eta El Corte Inglésen aurka salaketa jartzeko Madrilgo epaitegi batean”.

Erantzukizuna nori dagokion finkatzea, erronka handienetakoa

Adibidetzat enpresa hori ipintzea ez da kasualitatea. Izan ere, El Corte Inglés ez du modu zuzenean lan egiten Bangladeshen, bertako enpresak azpikontratatzat baizik. “Baldintzak berak ezartzen ditu ordea; transnazionalak erabil ditzaketen bitarteko juridiko ugarietako bat da: tokian tokiko enpresak kontratatzea. Azkenean, zer erantzukizun zibil, penal...



Ohikoa denez, gizarte zibileko elkarteek euren aldarrikapenak eraman dituzte Genevara, Giza Eskubideen Kontseilua bilduta egon den bitartean.

DISMANTLE CORPORATE POWER

» Hainbat elkarteek eskatu dute transnazionalak egiten dituzten giza eskubideen urraketak epaitzeko nazioarteko auzitegi bat sortzea, baina ez da erraza izango estatuek hori onartzea

izan du El Corte Inglésen Bangladeshen? Bat ere ez”. Sortu behar den itunak hori saihesteko arma izan beharko litzatekeela uste du Hernandezek: “Ekoizpen-kate osoan ezarri behar da erantzukizuna”.

Transnazionala zer den definitzea izango da, hain justu, Giza Eskubideen Kontseiluko lantaldearen zereginik zailenetako bat. Eta estatu aberatsenen nahiaren aurka egin beharko du. Gizarte mugimenduan dagoeneko sortu da zalantza: boteredunek erabat urardotzea lortuko balute, merezi luke nazioarteko hitzarmena egitea? Denborak esango du, eta itxura osoz, ez da denbora laburra izango. ■



K TUM K

AULESTIKO BATUKADA



☎ Amaia: 635 75 51 70

☎ Mikel: 619 76 29 02

✉ ktumk.batukada@gmail.com

KARDINALAK GILTZAPEAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Estatu Pontifikalak, 1241eko abuztuaren 22a. Gregorio IX.a aita santua hil zen, eliza katolikoaren eta Erromatar-Germaniar Inperio Sainduko enperadore Frederiko II.aren arteko gatazka betean. Garai hartan Kardinalen Kolegioa osatzen zuten hamabi kardinaletatik bi gatibu zeuzkan enperadoreak. Gainerakoak zatituta zeuden, iritzi eta interes desberdinak medio. Nola lortu enperadorearen eragin zuzena saihestea eta kardinalak luze gabe aita santu berria aukeratzea?

Matteo Rosso Orsini senatariak egoerari kirtenetik heldu zion: hamar kardinalak Erromako eraikin zahar batean, erortzeaz zegoen Septizonio jauregian, giltzapean (*cum clavis*) sartzeko agindua eman zuen. Guardiari jarri zizkien, hautesleek alde egingo ez zutela ziurtatzeko. Elizako goi karguen zerbitzariak ere ez ziren sartzen utzi, eta janari urritasunari Erromako udako bero itogarria erantsi zitzaion.

Bi hilabete eman zituzten baldintza estu haietan, baina ez denek. Robert Somercotes ingelesak, enperadorearen aldekoa bera, hilabete inguru besterik ez zuen egin giltzapean, irailaren 26an hil baitzen, itxuraz goseak eta beroak jota: bere aldeko kardinalak Somercotes pozoituta hil zutela salatu zuten. Baina ez litzateke harritzekoa higie eta osasun baldintzen ondorioz gertatu izana. Beste bederatziei ez zieten haren elizkizuk



Gregorio IX.a aita santua (miniaturako lehen bi binetetan gorritz jantzita) hil zenean, haren ordezkoa bilatzeko giltzapean sartu zituzten kardinal hautesleak, historiako lehen konklabearen.

netara joateko irteten utzi, medikuei ere ez zieten egonaldi osoan sartzeko aukerarik eman, gorozkiak pilatuz joan ziren... Romano Bonaventura kardinala *sede vacante* aldia amaitu eta hilabete batzuetara hilko zen, eta heriotza itxialdi gogorrari egotziko zioten. Goffredo da Castiglione Sabinako apezpikuak are gutxiago iraun zuen bizirik.

Azkenean, Castiglione aukeratu zuten aita santu. Zelestino IV.a izena hartu zuen eta handik hamazazpi egunera hil zen, azaroaren 10ean, kontsakraziorako ere astirik gabe. Erabaki gutxi hartu ahal izan zituen, horien artean Matteo Rosso Orsini eskumikatzea.

Badirudi, luzeago bizi izan balitz, Castiglione ere enperadorearen aldeko joerari helduko ziola. Hala ere, hori ez zitzaion axola beste kardinalak. "Ahula,

ezjakina eta fanatikoa" omen zen, baina hori ere ez zen traba izan haren alde bozkatzeko. Sabinako apezpikua zaharra zen, osasun arazoak zituen, itxialdiak errematea eman zekioketen eta, hain zuzen, horrek guztiak egin zuen bereziki *papabile*. Behin-behineko aita santua nahi zuten, konpromisozkoa, bide laburra egingo zuena, baina gabeziak betetako jauregi zahar hartako ateak irekiko zizkiena.

Bigarren konklabea lehena bezalakoa izango zen beldur, kardinalak Erromatik ihes egin zuten eta ez ziren 1243ra arte itzuli. Bi urte pontifizerik gabe egon eta gero Inozentzio IV.a izendatu zuten eliza katolikoko buru.

Horrenbestez, lehen konklabea ez zen eraginkorra izan, baina handik aurrera kardinalak giltzapean sartuko zituzten aita santua aukeratzeko. ■



LIFE

Frantziar Erresistentzia ez hain frantziarra

Bigarren Mundu Gerraren ondoren Frantzia eraiki zen diskurtsoaren arabera, herrialdea Erresistentziak askatu zuen, frantziar ia guztien babes heroikoari esker. Berriki, Oxfordeko Unibertsitateko Robert Gildea historialariak, *Fighters in the shadows* liburuan, bertso horren pitzaduretan sakondu du. Haren esanetan, erresistentzia ez zen

hain frantziarra izan, atzeritarrek pisu handia izan zuten mugimenduan eta historialariak nahiago du "Frantziako erresistentziaz" hitz egin. Gainera, ez omen ziren De Gaullek berak esan bezain gaullistak; komunistek rol erabakigarria jokatu zuten. Azkenik, emakumeek izan zuten garrantzia ere aitortu nahi izan du Gildeak. ■

Amaia Ezpeldoi hil dugu



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

“Intziri handi gaiñalat / herrekatik zen elkhitzen / ezpeldoieta dütüğü / ützi-rik ürrüntzütützen”, idatzi zuen Junes Casenave-Harigilek *Santa Grazi* pastorean. Pirinioetako ezpeldoiak bere onenean ezagutu ditu bizi duen ia mendeen idazle zuberotarrak. Apaizten ari zela Palestinan ezagutu zituen bertako jendearen sarraskien tankerakoa bizi dute egun bere herriko ezpeldoi, ezpel-di, ezpeleta eta ezpelategiek. Etorkizuneko zuberotarrek ezagutuko ote dute egun arterako ezpeldoen tankerakorik? Nahikoa lan.

Ezpela (*Buxus sempervirens*) ugaria da Euskal Herri hezeko mendi natural samarretan. Zuhaixa sendo, gogor, trinko, egur sendo eta zur zurrunkoa da. Zaildutakoa. Urte batzuk badira indarrean erasotzen duen ondoko bat azaldu zela: *Cylindrocladium buxicola*. Kanpotik kutsatutako landareak ekarri eta etxekalte. Gure ustez menderaezina zen landarea, gotorretan gotorra, hiltzen du, zerk eta ondoko ziztrin batek.

Hori gutxitxo, nonbait, eta goitik behera hosto eta azal, landarearen guritasun guztiak hozkadaka jaten dituen har bat ekarri dugu: *Cydalisma perspectalis*. Gure merkatarari senak Asiatik ekarri zuen Alemaniara duela hamarkadaren bat eta urte gutxian Europa osoa kolonizatu du. Erabat soiltzen ditu ezpelak. Lehengo batean Bortzirietan barna nenbilela, negargura sortzen zuen garai bateko pendiz ezpeltsu distiratsuak gorri-gorri eginda ikusteak.

Gure erosle aseezin zaina tarteko, laster Amaia Ezpeldoi zebagaitza ere hilko dugu. ■

Ezpela (Buxus sempervirens) ugaria da Euskal Herri hezeko mendi natural samarretan.



MSF-CC BY

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. 2015ean intxaurrak jarri nituen loreontzi batean, hondarra-ekin, eta orain zuhaitz txikia dago, hosto eta guzti, polita. Noiz atera behar da loreontzitik lurrean jartzeko? Eta nola sartu behar da lurrean, hondar da guzti?

Ramon Etxeberria Ihartza (Hernani)



Kaixo Ramon. Intxaurrondoak (*Juglans regia*) hostajea galduko du neguan. Soiltzen den sasoi hori baliatu behar da toki berrian jartzeko. Egokiena abendua da. Zuloa prestatu eta izotzik egiteko arriskurik ez dagoen egunetan landatu. Izotza harrotutako

lurrean sustraietaraino sartuko litzateke... Nahi baduzu hondar eta guzti jarri. Lurrean orain dagoen maila berean sartu, ez sakonago ez harroago.

Landatzeko tokia ondo aukeratu. Intxaurrondoari lur harroa eta busti ahala azkar lehortzen dena gustatzen zaio. Lur buztintsu eta motelak ez ditu maite. Bestetik, hazten denean inguruan izango dituen bizilagunak non dauden ere kontuan izan; tarte puska bat eman. Intxaurrondoa handi egiten da, handi-handia.

ASISKO, ALTZA PORRUZ

"Baratzean marraztu dut ia komiki osoa"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

Baratzeaz hitz egiten baino, kaka-solasean aritu zara *Altza Porruko* zure tartean, Asisko...

Beno, hiritarra naiz ni, oso oso iruin-darra, eta familian hurbileko inor ez dut sekula baserrian izan. Orain, nire bizitza egin dudanean, lurrarekin lotura badut, baina benetan oso berria da harreman hori. Eta harrigarria egiten zait ikustea nola lurak dena irens-teko ahalmena duen. Lana ematen diogu lurrari etengabe, ustiari egiten dugu... eta zer itzuli diezaiokegu guk berari? Bada, gure kaka! Ama-lurrari ematen digun guztia estimatzeko nik ahal dudana itzultzen diot.



Goizean goizeko komuneko bisita aukera paregabea da imajinazioa eta sormena pizteko, ezta?

Egiazki. Hasieran, etxe atarian *txabiske* hori, kakategia, eraiki nuenean, liburu pare bat utzi nituen bertan. Baina gero ohartu nintzen egunerokoan, paisaia aurrean izanda, denbora gaizki inbertitzea zela irakurtzea. Nire eguneroko luxu ttipia da, nire buruarekin egoteko tokia, natura nola aurkeztzen den ikusteko egokia: eguzkia altxatzen, kurrioloak pasoa, xomorro bat pasatzen... Une horiek niretzat izugarritzeko terapia dira. Eta askotan burua erdi *nirvanan* uzten den momentu horietan etortzen dira ideiak, sormena eta egunari hasiera aldarre onez emateko umorea.

Baratzerik izan duzu noizbait? Gauza askotarako balio du baratze batek.

Lehen, Iruñean bizi nintzenean, ez nuen baratzerik, baina orain hemen bai. Ni lanbidez *etxaperro* bat naiz: etxeko txakurra. *Etxaperro* esaten zaio Otxagabian eta Iruñerrian etxean lan egiten duenari, eta nik normalki etxean marraztu izan dut. Orain berriz, baratzeri ateratzen naiz askotan marraztera. *Altza Porruko* komiki ia guztia baratzean ma-

rraztu dut, eguraldi ona aprobetxatuz. Baratzeak erabilpen anitza dauka, beraz.

Erotikotik ere izan dezake zerbait...

Noski, bistan da! Euskaldunok kaka-solasa eta sexu-solasa oso gutxitan erabili izan ditugu modu zuzenean. Kantu eta testu zaharretan, ordea, metaforen bidez agertu izan dira: Tolosako koplak zahar horietan, adibidez, "utzi bakean porrua eta ez jan sagar erre" ziotenean, ez dut uste dietetikaz ari zirenik (kar, kar)... Nik uste baratzea naturala eta sana den aldetik, larrua jotzeko ere leku paregabea dela! Landareek, gainera, ez dute lotsarik, beren erotismoa manera lotsagabea erakusten dute, eta ikaragarri interesatzen zait hori.

Liburuko aurkezpenean zure burua pepino aurpegiarekin marrazteak zer esan nahi du?

Hemen, subliminalki begiratuz gero, segur aski zerbait falikoa aterako litzateke. Bestalde, Marko Armspach marrazkilari eta laguna urteetan egon da nire karikatura egin nahian, eta asko kostatu ondoren lortu zuen: pepinillo luze-luze bat marraztu zidan, eta oso ongi lortu zuen ni irudikatzea. Geroztik, nik uste Markok egindako pepino hartan ikusten dudala nire burua. ■



LABORE BILBO

Zer jan, eta nola erosi? Elikadura Burujabetza Helburu jardunaldietan

GITE-IPES eta Labore erakundeek, ARGIA eta *Uriolaren* laguntzarekin, jardunaldiak egin zituzten Bilbon, urriaren 24tik 27ra. Hauen baita, "Alternatibak eraikitzea posible da?" galderari erantzun zion Jakoba Errekondok, Unai Brea ARGIAko kazetaria akuilulari zuela: "Nekazaritza industrial esan izan zaiona, berez, nekazaritza kapitalista da: dirua irabaztea du helburu bakarra", esan zuen Errekondok, "sistema horretatik atera eta berri bat sortu behar dugu, elikadura katearen alderdi guztiak bere barruan bilduko dituen, hazitik platereraino". Lehenago edo geroago, oraindik nagusi den eredu horrenak egingo duela ere iragarri zuen, "ez baita jasagarria". Errekondoren ustez, sistema horri buruz egia esaten hasten garenean egingo du jendeak bide alternatiboetarako bidea. Euskal Herrian, zentzu horretan, trantsizio hori egiteko baldintza onak daudela gehitu zuen, gure kultur ondareari esker.

ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €

Liburuen eskaerak:

© 943 371 545 · www.argia.eus/denda

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · © 943 371 545

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

TRIBIAL FEMINISTA MAHAI JOLASA

1

Tribial feminista, emakumeak Historian zehar izandako paperaz ikasteko mahai jokoa

Arrasate, Basauri, Ermua, Ondarroa, Zierbenako udaletako eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Berdintasun sailek Tribal Feminista deritzon jokoa aurkeztu zuten 2010ean. Iaz, eragile hauek elkarlanean, jokoa ezagutzera emateko, gailu mugikorretarako garatu zuten izen bereko aplikazio didaktikoa.

Denok ezagutzen dugun joko didaktiko eta dibertigarri honen bitartez, Emakumeak historian zehar izandako papera erakutsi nahi du mahai jokoa eta zein isilarazia izan

den edo azpi-balioetsita. Galderak zenbait kategoriatan sailkatzen dira: historia; kirolak; artea eta literatura; geografia; ikuskizunak; eta natura. Horien guztien bidez, feminismoak egindako ekarpenen garrantzia aldarrikatu, parekidetasun eza salatu, eta aditzera ematen da sistema hori ez dela bidezkoa eta, gainera, kaltegarria dela denontzat. Nazioartean mailako emakumeak zein Euskal Herrikoak eta herrietako Emakume aitzindariak ere aurkituko ditugu. ARGIAkoen Gunean bost bi joko zozketatuko ditugu azaroan zehar.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARRASATEKO EMAKUME TXOKOA

Jose Luis Iñarra pasealekua, 10 · 20500 Arrasate
Tel. 943 794 139
emakumetxokoa@arrasate.eus

#feminismoa
#parekidetasuna
#jabekuntza


Hilabeteko honetako sariak

1



Tribial Feminista mahai jolasa
2 joko

2



Altza Porru liburua
3 liburu

3



Skakeitan taldeak abenduaren
5eko Durangoko kontzerturako
5 sarrera

4



Simaurraren konpostajea
2 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Bederatzi hizkuntza komunitatetako kideekin

Garabidek eta HUHEZIK antolatzen duten Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak ikastaroko kideak etorri ziren ARGIA-ra bixitan urriaren 25ean. Kitxua, Nasa, Maia, Nahuatl, Katxikel, Aimara, Guarani, Maputxe eta Bariba herrietan hizkuntza biziberritzeko lanetan dihardute.

AGENDA

Azaroa ARGIA izango da Gasteizen egitaraua (ekitaldi denak Oihaneder Euskararen Etxean izango dira, 19:00etan):

- Azaroaren 3tik 24ra *Trantsizioak* erakusketa. Azaroaren 3an bisita gidatua erakusketan bertan: Amelia Barquín, Estitxu Villamor eta Bego Oleaga Erdotzaren eskutik.
- Azaroaren 11n, SolasALEA elkarrizketa irekia Jone Goirizelaiari.
- Azaroaren 16an, *Garoña behin betiko itxi? Demokrazia energetikoa eta energia sozialak*. Solasean Aitor Urresti (EHU) eta Patxi Alaña (Garoñaren Kontrako Foroa).
- Azaroaren 22an *Ziztadak* dokumentala eta solasaldia: Zigor Olabarria (Lurralde Aske) eta Saioa Iraola (Bilgune Feminista).



Urriko sarituak

- Arizmendi Ikastolaren Konfidentza-ren Pedagogia liburua:** Leire Elizagarai (Gasteiz), Castillo Suarez (Altsasu), Gorka Camara (Berriz), Odile Arrieta (Donostia).
- Bilgune Feministaren Izena eta izana:** Usurbilgo Udal liburutegia (Usurbil), Idurre Aranguren (Arrasate), Aitor Aldai (Donostia), Sandra Losada (Gasteiz)
- EHNERen Ardatza harpidetza:** Iñaki Biain (Donostia), Olaia Elortza (Zegama), Jokin Zuzuarregi (Erretera), Ibon Garremendia (Azpeitia)
- Euskal Memoriaren Euskararen Kate Hautsiak:** Mikel Ozaita (Ibarra), Bergarako Udal Euskaltegia (Bergara)



EUSKARABILDUA JARDUNALDIAK

Gako komunikatiboak gizarte mugimenduen arrakastarako



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Komunikazio emozionala: tresna eta jokabide komunikatiboak gizartea mugiarazten. Artikulu honen titularrean esaldi hori ere jarri nezakeen, hori baita azaroaren 10erako antolatuta dagoen bosgarren Euskarabildua jardunaldietako izenburua; baina egia esatea nahi baduzu, irakurle, orain modan dagoen samurtasun tailerra gehiago ekarri dit gogora komunikazio emozionalaren kontu horrek hitzaldi sorta bat baino. Bota didaten bigarren esaldia argiagoa iruditu zait lehen boterako: gizarte mugimenduen arrakastarako gako komunikatiboak aztertzea du helburu aurtengo Euskarabilduak.

San Telmo museoa egingo da Iametz Interaktiboak, ARGIAk eta Ametzagaña Taldeak antolatutako jardunaldia, eta besteak beste, Euskal Herriko mugimendu feminista, Kataluniako Diada eta Islandiako prozesua dira ikuspegi komunikatibotik landuko diren egitasmoak.

Marketinetik ulertzen dira askotan komunikazio plan eta proiektuak, baina horrek ez du ziurtatzen benetan gizarte

te mugimendu jakin baten mezua eta eraldaketa gauzatzea; hau da, komunikazio planak arrakasta handia izan dezake zabalkundean, baina aldi berean mugimendu horren aldarrikapenean ez lorpenik ekarri. Egia da kanpainaren mezuek, hartzailea ondo identifikatuta izateak, edo mezua zabaltzeko erabiliko diren tresnak zehazteak garrantzi handia duela, baina tartean geroz eta indartsuago ari dira kokatzen gizarte mugimenduak. Orain arte hain eskuragarriak ez ziren baliabideak edonork izan ditzake gaur egun, eta herri proiektuak horiez baliatzen ari dira beren mezua ahalik eta ozenen zabaltzeko eta masa mugimendu handiak sortzeko. Baina zer dago benetan arrakasta honen atzean? Zein dira gakoak? Eta hizkuntzarekin zer gertatzen da?

Jardunaldietara joateko izena eman beharra dago eta dagoeneko zabalik da epea. Webgune honetan eman dezakezu: www.euskarabildua.eus. Hitzaldi guztien informazioa ere bertan aurkituko duzu. ■



SUSANA TALAYERO

"ARTISTA EZ DA ATERALDIK OTUTZEN ZAIZKION PERTSONA BAT"



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hainbat alor jorratu baditu ere, margolaritzat du bere burua Susana Talayerok (Bilbo, 1961). Bilboko Arte Ederren Museoak atzera begirakoa eskaini zion ekainean: orain arte halakorik egin duen lehen emakumea da, eta artistarik gazteena. Erakusketa amaitu aurreko egunetan hitz egin genuen berarekin.



“Kronologia bati helduko bainion, hasieratik hasi nintzen. Nik nahi nuen, erakusketara hurbildu ahala, jendeak prozesuak ikus zitzala, eta ez emaitzak”

“Erroma ez dago hain urruti ere. Lagunen bidez eutsi diot harremanari, eta, gero, apurka-apurka, lan-harremana ere egin dut. Lasai nago, Erroma eta biona ez da sekula amaituko”

“Loreak organoen parekoak dira, ez dira elementu begetal bat, bitxilore bat, adibidez. Nire ikuspegitik, loreek gorputza dakarte gogora, presentzia gogorra eta trinkoa dute eta zuloz eginda daude”

Nola sortu zen erakusketa egiteko ideia?

Atzera begirako erakusketa egiteko eskatu zidaten. Hasiera batean, gehiegizkoa iruditu zitzaidan, ez baitauzkat 97 urte, lanean ari naiz oraindik! Hala ere, atzera begirakoa bestela egiteko aukera ematen zidan, ez zedila izan hilkutxa moduko bat, baizik eta lanaren berri-kusketa.

Denbora asko izan dut erakusketa prestatzeko, urte eta erdi inguru. Ondo etorri zait, ez baita aise erabakitzen halako erakusketa batean zer sartu eta zer utzi kanpoan. Gainera, espazioa ondo dago, baina murrizta da, batez ere nire obrarentzat, formatu handikoa baita.

Aise osa nezakeen erakusketa formatu handiko 10-12 lanekin. Hala ere, ez nuen hautatze-prozesu fin-fin bat egin nahi, aitzitik, espazioak gainezka egitea nahi nuen. Nire lana erakutsi dut, jakina, baina esperimentatzeko baliatu dut museoa.

Argi zeneukan hori, hasieratik.

Argi neukan, Valcárcel Medina artistak esan bezala, neure buruari galdetu behar niola ea museoak, normalean, zer ez duen egiten, eta ea nik neuk zer ez dudan aurrez probatu, eta horixe egin. Niretzat erronka bat da erakusketa hau, erakusteko espazioarekin esperimenta-

tu nahi nuen, inongo lotsarik gabe. Jakina, erakusketa-espazioa museo bat da, eta, hortaz, pisuzko konnotazioak ditu hainbat arlotan, baina, nire iritziz, artista bazara eta espazio horretan sartzen bazara, eskubidea daukazu, eta baita betebeharra ere, zer edo zer ausartagoa egiteko. Ez soilik zure lanak erakutsi, baizik eta jauzi egin.

Nola joan da muntaketa-lana?

Kronologia bati helduko bainion, hasieratik hasi nintzen. Nik nahi nuen, erakusketara hurbildu ahala, jendeak prozesuak ikus zitzala, eta ez emaitzak. Alegia, dinamika bat sortu nahi nuen, eta ikusarazi artista ez dela ateraldiak okurritzen zaizkion norbait; aitzitik, askoz lan konplexuagoa eta etengabea dela. Batzuetan burutazioen kontu hori azaltzen dute komunikabideetan: topiko bat da, eta sekulako kaltea egiten dio arteari.

Hiru gune sortu nituen, elkarri oso lotuak: lehenengoa Erroma da. 1986-96 bitarteko lanek osatzen dute, garai hartan bizi izan bainintzen Erroman. Ondoren, 2000ko hamarkada dator, *Lorategia*, eta gero *Buruhandiak* eta *La Murata* bideoa, lanik berrienak.

Noiz eta zergatik joan zinen Erromara?

Bilbo hiri gogorra eta grisa iruditzen zitzaidan, eta, hainbat arrazoi tarteko, ihes egin nuen bertatik, inongo bekarik gabe. Arte Ederretako fakultatekoa amaitu eta ziztuan egin nuen ospa.

Hamar urte egin nituen Erroman. Hasieran esperimentu bat zen: hilabete batzuk igaro eta ea zer gertatzen zen ikusi, ez bainean halako hiri batean bizitzeko baliabide ekonomikorik. Azkenetako, hiriak harrapatzen zaitu, eta han osatzen duzu zure bizitza. Erromako instituzio espainiarretatik urrun ibili naiz beti, ez bekarik ez akademiarik ez ezer, eta ez dut harroxo esaten. Hango giroan egin nuen bizimodua, giro oso lokalean. Edonola ere, mundu lokal hori atzerriarrez lepo dago, bertan bizi edo pasadan baitaude beti. Halakoxea da hiriaren historia bera, hainbat geruza eta estrata ditu, eta oso interesgarria da hori.

Zer ekarri zizun?

Bada, funtsean, burua ireki zidan, aizkorakada. Bestelako jendearekin elkartzea, bestelako gauzak ikustea, gauzak

ikuspegi askotatik ikustea... Zabaldu egiten zara. Gero, bizitzan, asko dira uzkurtzeko uneak. Iruditzen zait bizi-kontua dela alde egitea, gero itzultzen bazara ere. Nire kasuan Erroma izan zen, eta beste batentzat, ordea, beste hiri bat izango da.

Zer-nolako harremana daukazu orain hiriarekin?

Gogorra egin zitzaidan Bilbora itzultzea, eremu arrotza zen niretzat. Hasieran, nostalgiaz bizi nintzen, eta hori are okerragoa da, zeren, hasteko eta behin, ez baitzara orainean bizi, bukle batean sartzen zara, etengabe galerarekin lotuta, eta horren ondorioz, biktimismoan erortzen zara, biktimismoaren zingiran, nire adiskide batek esaten duen moduan. Galerak eta biktimismoak barre-nak jaten dizkizute, eta bizitzea eragozten. Beraz, bestelako zerbait egin behar nuela iruditu zitzaidan: hasteko, hiriarekin harremanetan jarraitu behar nuen: zergatik eten lotura? Gainera, Erroma ez dago hain urruti ere. Lagunen bidez eutsi diot harremanari, eta, gero, apurka-apurka, lan-harremana ere egin dut. Lasai nago, Erroma eta biona ez da sekula amaituko.

Erreparatu diezaiogun erakusketaren bigarren parteari. Arreta pizten du *Lorategi* horrek.

Lorategi instalazioa hainbat marrazkik eta margok osatzen dute. Pieza bakoitza autonomoa da, baina museoan bestelako zerbait egitea erabaki dut, aurrez sekula egin gabea: pieza bakar bat osatu, pieza askorekin. Pilaketa-instalazio bat da, pieza-komunitate bat: elkar hartu eta pieza bakarra osatzen dute. Aretoaren pareta bat hartzen du, ia osorik, eta baita zoruaren puska bat ere.

Lorategi deitu diot, izan ere, 2000ko hamarkadan egiten nituen piezak bildu ditut: loreak, zurtoinak, organoak... Niretzat, loreak organoen parekoak dira, ez dira elementu begetal bat, bitxilore bat, adibidez. Nire ikuspegitik, loreek gorputza dakarte gogorra, presentzia gogorra eta trinkoa dute eta zuloz eginda daude.

Pieza guztiak ikusten dituzu, eta, aldi berean, bat bera ere ez.

Sormen-lan orotan, eta bizitzan ere, erabakiak hartu behar dira, eta pena handia ematen dizun arren, beti uzten duzu



“Gogorra egin zitzaidan Bilbora itzultzea, eremu arrotza zen niretzat. Hasieran, nostalgiaz bizi nintzen, eta hori are okerragoa da, zeren, hasteko eta behin, ez baitzara orainean bizi, bukle batean sartzen zara, etengabe galerarekin lotuta, eta horren ondorioz, biktimismoan erortzen zara, biktimismoaren zingiran”

“Hestudioko paretak mintzen modukoak dira, ez da leku itxi eta isolatu bat, toki mitiko hori non artista giltzapetzen baita eta artelanak sortzen baititu. Guztiz kontrara, niretzat estudioa toki ireki, irazkor eta porotsua da”

zerbait kanpoan. Bistan denez, halako pilaketa batean, ez dituzu piezak ikusten. Baina ez nituen pieza pila bat ipini nahi ahalik eta lan gehien erakusteko, aitzitik, hainbat planoren bidez, batasuna sortu nahi nuen.

Gainera, lorategiaren metaforarekin jarraituz gero –ez baita lorategi versallistar, ordenatu eta arrazional bat–, lorategi batean zaudenean bide bat hartzen dizu lehenik, hura ikusi, gero beste gauza bat agertzen zaizu... Miatzeko toki bat da, lan artistikoa bezalaxe, eta zerbait topatzen duzunean, atzean utzia duzu beste zerbait. Begiradarekin lotuta dago: zeuk eraikitzen dituzu zeure kontakizun txikiak. Pieza hau zehatz-mehatz antolatu dut, hala ere; hala maila formalean nola kronologikoan. Ez da ausazko lorategi bat, inondik ere. Beste tokiren batean, akaso aldatuko da, baina hemen halakoa da, eta kito.

Erakusketa zeuretu duzula iruditzen zaizu?

Bai, hein handi batean. Nahiago nuke katalogoa ere aretoan egon balitz. Lan asko egin dugu bestelako katalogo bat egite aldera. Liburu bat izan zedin nahi nuen, lanaren inguruko giroa ere bil zezan. Orokorrean, halako katalogoetan obren zerrenda agertzen da, eta, gero, amaieran, kronologia bat eta artistaren argazki bat. Ez nuen hori nahi. Zaharkituta dago. Bestelako irudi batzuk ipini nahi nituen, piezak ibilbide baten barruan kokatu, irudi-gidoi baten bidez,

lanaren parte baitira. Iruditzen zitzaidan aberatsagoa behar zuela izan, konplexuagoa. Hasieratik pentsatu nuen oso lotuta egon behar zuela erakusketa-rekin, eta horretan tematu ginen. Gogorlan egin ezean, ez duzu lortzen.

Zer-nolakoak dira zure lanegunak?

Lan artistikoa metodikoa da. Bazter utzi behar ditugu inspirazioaren kontua eta halako topikoak. Nik, batez ere, estudioan egiten dut lan. Artista denak ez dira hala aritzen, jakina, baina ni, zentzu horretan, tradizionala naiz. Ezer ez neukan garaietan ere, estudio bat neukan, dohainik. Niretzat garrantzitsuagoa zen estudioa etxea bera baino.

Nire ikuspegitik, estudioa da gela bat norberarena. Beste norbaitekin ere konpartitu dezakezu, noski, baina pentsatzeko eta artea egiteko toki bat da. Ez da balizko dorre bat; estudioan gertatzen dena ez da han geratzen, atera egiten da, eta estudioan gertatzen dena, azken batean, kanpoan gertatzen direnekin dago lotuta. Niretzat, estudioko paretak mintzen modukoak dira, ez da leku itxi eta isolatu bat, toki mitiko hori non artista

giltzapetzen baita eta artelanak sortzen baititu. Guztiz kontrara, niretzat estudioa toki ireki, irazkor eta porotsua da. Barruaren eta kanpoaren artean dago, baina, aldi berean, leku intimoa eta pertsonala da.

Eta... hemendik aurrera zer?

Erakusketari esker ikusi dut badaudela loturak nire obraren barruan, eta baita aldeak ere. Ez dut esaten aurrera edo atzera egin dudarik, baizik eta, soilik, badaudela loturak eta etenak. Era berean, ohartu nahiz, zenbait kasutan, gauza berari bueltaka ari garela etengabe, nahiz eta gauza hori zer den zehatz-mehatz jakin ez... Batzuetan, horixe da lan artistikoa, helmuga jakinik gabe lan egitea: ikertzeko beste modu bat. Eta jabetu naiz, berriro ere, izugarri gustatzen zaidala nire lana.

Adinari buruzko mito hori dago, X adinera iritsita jada amaitu dela dena. Baina sormen-lanean, zuk zeuk erabakitzen duzu noraino segi, eta nola. Are gehiago, zenbait gauzatan behintzat, indartsuagoa naiz orain 20 urte nituenean baino. ■

Lete
itzulpenak
egokitzapenak

administrazioa • publizitatea
liburuak • enpresa

Tel.: 943 515 346
www.lete.net • lete@lete.net


MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailetarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otaui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

Noaua!ren KULTURALDIA 2016
Azaroaren 4tik 13ra

azaroak 4, OSTIRALA
DANTZA
Orbel di dantzan

azaroak 5, LARUNBATA
MUSIKA EMANALDIA
Konpasean: Bidata intimo bala emakumeen istorietan zehar

azaroak 10, OSTEGUNA
HITZALDI-SOLASALDIA
Xabi Solanorekin

azaroak 11, OSTIRALA
KANTU-BERTSO-AFARIA
Kantu-jira eta kantu-bertsu-afaria
Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Jexux Mari Irazu

azaroak 12, LARUNBATA
ANTZEZLANA
Non gaude?

azaroak 13, IGANDEA
KONTZERTUA
Ruper Ordorika

azaroaren 4tik 13ra
ERAKUSKETA
Noaua! K.E.-k 20 urte!
Bideo emanaldia, panelak...

USURBIL KANTUZ

noaua                          

USURBIL EN

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Behatoki ezin hobe



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Gabeziaren khanoreak

TERE IRASTORTZA

Pamiela, 1995

1984koa den Itxaro Bordaren *Emakumeak idazle* hartan Teresita zena, Tere da Irastortza jada hemen, *Gabeziaren khantoreak*. Esan nahi dut: eskukada bat poesia liburu argitaratuta, 34 urte, aurreko lan ia guztia biltzeko moduan dagoen poeta heldua dugu dagoeneko. Bost poemategi sartzen ditu bakarrean. Ez dira idatzitako poema guztiak. Aldaketa funtsezkorik ere ez dute jasan. Baina: “Ezin eutsi izan diot bilduma honetan zenbait oroitzapen josteko irrikiari”.

J. V. Foix poeta katalanaren zita batek irekitzen du bilduma, hamar puxtarri. Eta jarraian lotzen zaio zenbait oroitzapen josteko irriki horri: “Aitor dezadan, lehen hiru liburuotan oso-oso gaztearena topatzen dudala letra”, edota “onartuko al dute kritikariak, halakorik baldin bada gure artean, nire idatz garaiko adiskideentzat dastagarri izan daitekeena”. Hori hitzaurre orokorrean, poema liburuak banan-banan komentatzen hasi aurretik.

1980ko *Gabeziak* estreinakoaz, zera dio gero: “Zertaz harro bizitzerik izango nuke orduko hitz guztiak idazteko adorerik banu”. 1983ko *Gaia eta Gau* aldaketak bigarrenari, besteak beste, haxe gehitzen dio: “Joera nagusia zen euskal literaturan hizkuntza berarentzako atxikimendua, baina eguneroko bizimoduari heltzeko gutzia falta zitzaion. Mikel Arregi, Koldo Izagirre, Arantxa Urretabizkaia ere arreta berezia zuten horrekiko, baina inork gutxiak”. Eskertzen da, 1983ko *Hostoak* hirugarrenaz ari dela, zintzotasuna: “*Gaia eta Gau* aldaketak zein *Hostoak*-en aurreneko liburu-ko adierazpidetik urruntzen saiatu nintzen. Inondik inora, bilduma honetako testuen artean hauexek dira irakurlea, poema amai-

tu aurretik, gehien geldiarazten dutenak”. Halako batean, 1986ko *Derrotaren fabulak* laugarrenarekin, laburrerako joera hasten da azaltzen, poetak ahozko literatura tradizionalari lotzen diona: alegietako moralejak bezain labur nahi zituen, “baina moralismoaren kutsu hori ezabatu eta errealtatearen datatzea eskainiz”. Bosgarrena den 1986ko *Osinberdeko khantoreak* bildumako poesietan, bestalde, “lehenengo aldiz txertatzen da ironia puntua. Ironia edo umore mindua”. Eta, azkenetako, poemak eurak baino interesgarriago ia, poemen gainean, iragandako denboraren perspektibarekin, egiten den irakurketa ote den. Ez gaizki ulertu, mesedez, poemak ere irakurgarriak dira, baina norbere lanarekiko begirada kritiko hori egin zait kasu honetan deigarrien.

“Inork tentazioa izan dezake zaldibiarren ibilbide poetiko sendo eta oparoaz ahazteko, baina gogoan hartu behar da 1980ko *Gabeziak* hartatik euskal poesiako erreferentetako bat dela”.

Beñat Sarasolak dio, eta 2011tik. Liburu hau litzateke ibilbide poetiko horren lehen atzera begirako, geraleku, behatoki ezin hobe. ■

Tere Irastortza
(Zaldibia, 1961).



» TELEGRAMA

Narratzaileen Txokoa ekimena zabalduko da Ernest Lluch Kultur Etxeko Areto Nagusian; azaroaren 10ean, 18:30etan STOP Azaroaren 12an **Xilaba Bertsulari Xapelketaren Finala** Baionan jokatu da Lauga gelan; 17:00etan STOP **Xabier Ayerraren** *Just people* dokumentala proiektatuko da: **Greziako iparraldean dau-den errefuxiatuen ahotsa** entzun da Iruñeko Katakarak aretoan azaroaren 22an, larunbatez, 19:00etan STOP Bilboko Azkuna Zentroan **Kontu Kontari** ekimena abiatuko da azaroaren 12tik, **literatura eta idazketarekiko interesa** sustatu xedetan, txikitatik, ipuinen eta kontakizunen bidez STOP

» DISKOA

Belarrak beti egiten du aurrera



Iker Barandiaran



Haztearen izerdia BELARMIÑAK

Bonberenea Ekintzak, 2016

Tolosako Belarmiñak taldeko kideak.



Barrena behar da, handia, gaur egungo albistegiak ikusteko zein egunkariak irakurtzeko; eta oro har egunero kalera irten eta herritar askok bizi dugunaren aurrean bidea jarraitzeko. Urdaila ere arriskuan jarriko dugu ziur eguneroko erritmo zoro honen gurgilean etenik gabe jarraitzen badugu. Zapaldu beharko dugu freno halako batean! Bada, zakur zahar hauek erabaki dute egunerokoari bizkarra eman gabe, belarmiñaren laguntzarekin barrenak zaindu eta bizitzari beste erritmo bat jartzea, pausatuagoa, arinagoa eta soilagoa. Hitzetan, baina, soil-soil kritika latza egiten diote lotuta gaituzten ohitura eta mekanismoei.

Hazteak dakartzan ajeei abesten dieten publikora zabaldu duten lehen lan luzean (aurretik *Lehenengo pausoak* izenpean hainbat kantu eman zituzten argitara ia oharkabeen), Bonberenea

Ekintzak-ek kaleratutako 10 hatz beteko disko dotorean, CDa opari duena.

Proiektua sortu zenetik taldea sendotzen eta egonkortzen doa, eta hala egin dute beraien kantuek ere, ñabardurak gehitzen eta hazten dihardute-eta. Tortura Sistematika, Lobo Elctrico, Bukaera, Perlas, Iratzar eta bestelako taldeetan ibiliak dira gaur egun taldea osatzen du-

ten lau lagunak. Eta aurrekariekin alde-ratuta dezente goxotu badira ere, belarmiñak bezala, beraien ahalmenak jantzi koloretsuen barruan gordeta dituzte. Izan ere, taldea *Lehenengo pausoak* bildumatxoan nagusi zen folka uxatzen joan da. Eta horren lekua hartu dute go-goz power-popak eta pop gitarreroak. Horretan zeresan handia du lki gitarra jotzaileak, besteak beste, gustuz ateratzen dizkio-eta gitarrari soinuak.

Arteriak luzatu nahi dizkigute aipatutako lan hartatik berreskuratu dute. Guk geuk aitzurtu dugun hilobiari, hipotekari, abesten diote eta lki lan handia egin du gitarrarekin. 80ko hamarkadatik edaten du, pop-etik, rocketik eta baita post-punketik ere, eta tarteka pope-roagoa bada ere, gitarrek indar handia hartzen dute.

Hain da estua positiboagoa da musika, ez horrenbeste hitzetan. Jostariagoa da, baina badu lo-kantatik, errexitatutik eta tempoan Igor Arzuaga Mara-ren antzik ere. *Jai daukazu* talde-aitorpena da, errendituko ez denaren ikurra. Zamalka dator zaldia, distortsio eta guzti, eta ez du brit-pop talde borobilenen inbidia-rik, koro eta guzti, nahiz eta bukaeran kontrola galduta (edo utzita) basakerian hiltzen den.

Eta, bukatzeko, *Izena eta izana* pieza: kantu borobil, energiadun eta baiko-rrena, koro eta guzti. Pop distiratsu eta bizia, noise-popa ere gustuko duena eta hurbiletik The Clash ere arnasten duena. ■

Berrasmatzea berrarmatzea

KONTZERTUA

ANTTON ARANBURU ETA BIKIAK
JOSEBA TAPIA ETA BESAMOTZAK

Urriaren 6an, Gasteizko Gaztetxean
Muinoko Hotsak egitasmoaren barruan
eskainitako emanaldia.

Joseba Tapia eta Besamotzak taldearen
hurrengo emanaldia: azaroaren 18an,
Donostiako Bukowskin,
Info7 irratiaren 10. urteurreneko festan.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu



DOSPORDOS

Joseba Tapia izango da gure panorama-ko musikaririk emankor eta aldi berean kamaleonikoenetako bat. Soinujole moduan bazterrak irauli zituen 1980ko hamarkadan, eta, oraintsu arte, halaxe jardun du diskoz disko, proiektuz proiektu aurrez egindakorik egin gabe, bere bidea asmatzen eta berrasmatzen.

Soinua utzita, gitarra lagun etorri zen Gasteizko Gaztetxera ere, Gaztetxeak berak eta Hala Bedi Irratiak elkarlanean antolatutako *Muinoko Hotsak* kontzertu zikloaren baitan, proiektu berria eskutan: Joseba Tapia eta Besamotzak.

Giroa berotzeko lanak gasteiztartutako Antton Aranburu eta Bikiak taldeak hartu zituen, eta pop kutsuko kantu akustikoak eskaini zituzten, hirukotean: bateria, kontrabaxua eta gitarra. Ordu-bete eskaseko tartean, sorta dotorea utzi ziguten, eta beste batean entzuteko gogoa piztu, leku itxiago batean, agian.

Tapiak eta lagunek, berriz, ez zeukaten inoren gogoa pizten ibili beharrik,

zenbait soinu probetara ere azaldu bainkinen oraingoan zerekin zetorren jakiteko gogoz. Rock laukote estandar bat, gitarra joleetako batek tarteka soinua hartzen duela, ez Josebak.

Ordu eta laurden pasatzoko tartean, lasartearrak bere ibilbideari errepasoa eman zion, ia disko guztietako kantuak joz. Izan ziren *Real Politik*-eko *Zoragarria ez al da*, edo *Quebec*-eko *Maitez*, eta, nola ez, aspaldiko *Besamotzarena* ere. Denak, jantziz aldatuta; zenbait jatorrizkotik gertuago, beste zenbait ia ez ezagutzeko moduan. Nolabait ere, hainbeste aldiz jotako kantuak beste era batean jota ere kantu borobilak direla adieraziz.

Bere ohiko instrumentua aparte utzi izanak harridura sortu zuen bere garaian, *Tximela Kapitanari* ahotsa jarri zionean, nahiz eta berak esanda, *Tapia eta Leturia Band*-en kantuak gitarra lagun konposatzen zituen. Gitarrarekin ari da oraingoan ere, baina jotzeko mo-

dua soinujolearena dela esango nuke; izan ere, trikitian ohi den moduan aritzen: kantari ez zegoenean melodia gitarra elektrikoarekin eginez, gehienetan Wah Wah pedalaz lagunduta, rockero asko.

Taldea, oro har, hasiberri xamar zegoela iruditu zitzaidan; nahiz eta taldekide guztiek nork bere kasa ordu asko emanak izan taula-gainean, Besamotz moduan emanaldi batzuk gehixeago behar dituztelakoan nago, eta ulertzekoa ere bada soinujole eta guzti lehenengo baitzuten.

Oraingoz kantu berririk ez du agindu Josebak, ezta disko berririk ere. Plazara atera da berriz, eta hantxe defendatuko ditu, hainbat taula, mandio eta gaztetxetan lehenago ere defendatutako kantuak. Finean, sekula jotakorik jo ez duen artista baten beste pauso bat da hau, epelera joko ez duen artista batena, eta inor epel utziko ez duen berrarmatzea. Niri gustatu zitzaidan. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

ERABATEKO, BETE-BETE HAIZE-OIHALA		PERTSO- NAIAREN IZENA ADURRA		POTENTZIA UNITATEA		KANPO LAMA		FUTBOLEAN, TANTO ... DE JANEIRO, BRASILGO HIRIA		ERO PERTSO- NAIAREN ABIZENA		LOKAILUA, SOKA GALIAKOA
				ASTROLO- GIAN ADITUA TUTU T BARIK								
ZIKINDU EGINDAKO, ASMATUTAKO							ERREN- KADAK, LERRAK KILOA					
								JOKAMOLDEA ODOL-TALDEA				
LO EGITEKO ALTZAIRU	LETRA IZENA PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA									BROMOA HURRERATU ADITZAREN ERROA		
			UR IZOZTUA					UOLDE-UR ZUBEROAKO UDALERRIA				
EUSKAL ARTISTEN ELKARTEA ZAKUR												
		LITROA ERORI ADITZAREN ERROA						PURRA, BIZKAIAN APUR, EZDEUS				
NIHAUR SARRAILAK EGITEN DITUENA				NAIZEN HAU ITXAROTE		ZIZARE BIZKAIKO IBAIA		MEGA ETXEKO ERREGAI		JAINKO EGIPTOARRA SOBERA, GEHIEGI		ZORRAREN ORDAINA
											FLUORRA NORI ATZIZ- KIA	
ZEINI BIRAO ESANEZ					EkARRARAZI KILOA							
							SENTIKORRA EZ DENA, AXOLAGABE					

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	2		6					
		4		1				5
	1		7					8
				9		2	5	
2			1		6			9
	4	8		3				
6					8		9	
4			9			7		
				5		1		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Opa izan, desiratu.
2. Aldapa, malda, aldats.
3. Atarte, atalase.
4. Hegazti mota.
5. Koipea.

Ebazpenak

1. Opatu. 2. Patar.
3. Atari. 4. Tartin.
5. Urina.

B	I	R	A	V	A	K	O	S	O	R	A	I	O
S	A	R	R	A	I	L	A	G	I	L	E	F	
N	E	U	N	H	M	R	A						
O	R	L											
E	A	E											
O	H	E											
D	E												
S	O	O	T	A	K	O							
T	E	I	U	T	U	L	A						
B	E	L	A	V	A	S	T	O	L	O	G	O	
P	M	W	V	G	Z	L							

Davide Cabaleiro. Euskal Herriko galiziarren historia biltzailea



ARITZ LOIOLA

Davide Cabaleirok (A Corunha, 1982) ez du familiarik gurean; erdia Galizian eta beste erdia Kuban du, aita han sortua baita. Kulturatik etorri zitzaion euskararekiko eta Euskal Herriarekiko jakingura, musikatik batez ere. Gurera etorrita, hemengo galiziar immigrazioaren dimentsioaz ohartu eta kontatu behar zuela erabaki zuen. Bertoko galiziarren historia eta historiak biltzen ari da *Sitio distinto* film dokumentalean, sustraiak Galizian eta adarrak gurean dituen giza talde handiarena.

“Galiziaren eta Euskal Herriaren arteko harremana intimoa da”

Jabí Zabala
@sarean

Epifania Trintxerpen

“Pasaia ezagutzen nuen, bertan bizi zen lagun bat nuelako; baina egun batean, Donostiatik Pasaia paseoan nenbilela, Trintxerpen sartu eta altxorra aurkitzea bezalakoa izan zen, mundua hankaz gora jarri zitzaidan: jendea kalean galegoz berbetan, tabernen izenak galiziarrek ziren, barruan Galiziako posterrak... Dena zen galegoa, tabernaria galegoz zuzendu zitzaidan. Zenbat denbora zeraman galdetu nionean, berak 50 urte igarota ere, galiziar eta, era berean, oso euskaldun sentitzen zela erantzun zidan, pertsona moduan hemen hazi zelako. Eguziaren ez dago etorkin berririk baina garai batean bosgarren probintzia izango zen ziurrenik, eurentzat sortutako *sitio distinto* bat”.

Nola sortu zitzaizun Euskal Herriarekiko interesa?

Ikasle garaian, institutuan, kultura zapaldua iruditzen zitzaidalako, inguruan harresi modukoa zuena. Gaur egun internet dago, baina orduan kaseteak eta CDak zeuden. Galizian Milladoiroren eskutik Oskorri ezagutu genuen, Anton Reixaren eskutik Negu Gorriak... Euskal musikaren oihartzunak heltzen zitzaizkigun, eta hizkuntza *arraro* harenak...

Gurera etortzeko egin zenuen bidea euskaratik eta Irlandatik pasatzen da.

Galiziako telebistan lan egin ondoren Irlandara joan nintzen urtebetez, ingelese ikastera, eta bertan Isaac Xubin galiziarra ezagutu nuen. Cork-eko Unibertsitatean euskara eskolak ematen zituen eta berak bultzatu ninduen izena ematera. Galiziara itzulita, ikus-entzunezkoekin lotutako ikasketak nahi nituen egin eta Katalunian egitea pentsatu nuen hasieran baina lagun batek Andoingo eskolaren berri eman zidan eta izena eman nuen han. Bi urte Gipuzkoan eta, ondoren, beste lau urte eman ditut Bilbon.

Nola sortu zen *Sitio distinto* egiteko ideia?

Nire hasierako asmoa Bilboko Masustegi auzoan film laburra egitea zen, Galizian nola eraiki den erakusteko adibide ona baita. Euskal baserria ondo antolatutakoa da; Galizian berriz, *galiziar feismoa* dago errotua: egin eta kito. Masustegi eredu kaotiko horrekin egin da dago, *favela* bat da. Apurka-apurka, beste erreferentzia batzuekin mapa bat marrazten hasi nintzen, eta orain dokumental luze bihurtu da. Hemengo Galiziarren historia kontatzea eta bi herrien arteko loturak azaltzea dira helburuak, lotura sozialak eta batez ere kulturalak.

Zeintzuk dira mapa horretako mugarriak?

Asko dira. Masustegiz gain, Ezkerraldea, Erreterria... Trintxerpe galiziarrek jasotzeko sortu zen. Arrantzaren bidez hizkuntza berezia sortu da, adibidez, Galiziako portuetan “txo” entzuten da, eta Ondarroan “*amarra peixe*”. Kulturarekin lotuta, Oiartzun aipa daiteke, Concha Murgia oiartzuarra Rosalía de Castroren amaginarreba izan baitzen, Manuel Murguiaren ama. Laudion komunitate



Davide Cabaleiro
(ezkerrean) Rianxon,
Galizian, dokumental baten
grabazioan parte hartzen.
Hau dio XX. mendean Euskal
Herrira iritsitako galiziarrez:
“Errealitate ezberdina sortu
zuten, ghetto bat (...) Ez
ziren lanera etorri bakarrik,
motxilan kultura eta
hizkuntza ekarri zituzten”.

ELENA OLIVARES

indartsua dago, egun ere. Barakaldon, galiziar zentroaren inguruko 347 etxebizitza euren ekimenez eraiki ziren, *O barrio dos galegos* delakoan. Astero enpandada eta gainerako gauzak Galiziatik ekartzen dituzte kamioi batean.

Nola deskribatuko zenuke Galiziaren eta Euskal Herriaren arteko harremana?

Intimoa, hurbila. Historia pertsonalak, jendearen esperientziak, itzelak dira. Ondarrutar gazte batek, adibidez, bazekien bere aitona galiziarra zela baina gehiagorik ez. Ikertzen hasi eta konturatu zen bere koadrilako gehienak jatorri galiziarrekoak zirela. Hirugarren belaunaldikoa izanik, bere jatorrizko familiaren lorratza galdua zuen, baina aitonaren herrira joan eta familia aurkitu zuen.

60ko hamarkadan iritsi ziren galiziar etorkin gehienak.

Bai, baina baita askoz lehenago ere. Ondarroan guda baino lehen, eta Barakaldon 1901ean sortu zen galiziar zentroa, Europako lehena, ordurako galiziar ko-

puru handia baitzegoen Ezkerraldean eta meategietan. Gallartan 1860an jada baziren galziarrak.

Nolakoa izan da galiziarren integrazioa gurean?

Egun ezberdina da, baina lehenengo belaunaldiarentzat gogorra izan behar zuen oso. Tren batera igo eta ezezagunera bidean: Zaragozara, Donostiara... Eurentzat leku ezberdina behar zuen derrigorrez, *sitio distinto* bat. Errealitate ezberdina sortu zuten, ghetto bat, hemengoentzat ezberdina zen giro bat. Baina beste ikuspuntu batetik begiratu zitzairen hemen, ez baitziren lanera etorri bakarrik, motxilan sartuta beraien kultura eta hizkuntza ekarri baitzituzten. “Errespetua sorrarazten zigun euren hizkuntzan berbetan ikustek”, esan didate hemengo lekuko batzuek.

Loturak sortu ziren, Manuel Maria eta Gabriel Aresti kasu.

Oso interesgarria da harreman hori, *Galziarrak Bizkaian* liburuan kontatzen den historia bat da. Hemengo langileek

eta Galiziatik etorritakoek lantokietan egin zuten topo eta eskubideak borrokatu. Olerkiak irakurtzen, Maria eta Arestiren kasuan, harremana sortu zen, elkar ezagutzeko gogoia.

Jende askoren laguntza izan duzu dokumentalean.

Bai, Xosé Estevez, Dani Alvarez, Joxe Mari Agirretxe, Xabier Amuriza, Iñaki Anasagasti, Anton Reixa, Sechu Sende... Ekoizpenean Zirriborro ekoiztetzeko lagunak izan ditut bidelagun, Santi eta Jokin, euretako baten aitona galiziarra zen eta bere sustraiak bilatzen ari dira orain.

Irratsaioa ere hasi behar duzu beste lagun batzuekin. Zer entzungo dugu hor?

Ireki gaiola saioa hasiko gara egiten Bilbo Hiria irratian, Galizialeak elkarteko lagunekin. Tamalez ni naiz lantaldeko euskaldun bakarra, gainerakoa galegoz egingo dugu. Gehienbat kultura gaiak jorratuko ditugu, beste Galizia bat ezagutuko duzue, koloretsua, freskoa... Sanxenxotik harago joango gara, benetako Galizia ezagutzeko. ■



Erraustegirik ez dute egingo Zubietan, proiektuaren aurkako lipdubaren ondoren

“Bagenekien lipduba tresna garaitezina zela, baina ez genuen lehenago atera nahi, honelako bideoen inpaktua kontrolaezina delako eta beldurra ematen zigun”, adierazi du Zigor Zubieta usurbildarrak. Euskal Herrian egin den 253.062 lipdub honek mugari berria ezarri du eta mota horretako ekimenei esker lortutako garaipen politikoen zerrendara batu da: in-

dependentzia, presoen askatzea, estatu matriarkalaren abiatzea, eta abar.

Erraustegiaren aldeko klase politikoaren gaineko presioan sakontzeko, udarari begira reggaeton abesti komertzial baten euskarazko moldaketa egitea aztertzen ari direla aurreratu digute Ikerketa+Garapena+Berrikuntza taldeko arduradunek.

Gerturatu osteko intxaurrak ez dira lau, hiru baizik, EHUKo ikerketa batek argitu duenez

EHUKo botanikari talde batek argitu berri duenez, behin gerturatuta urrutiko intxaurrak ez dira lau, betidanik kristo guztiak pentsatu duen bezala, hiru baizik. “Ez da erraza izan ondorio horretara iristea”, azaldu du ikertaldeko zuzendari Edorta Mariezkurrenak, “tira, izatez ez da erraza izan intxaurretara iristea, oso urruti zeuden eta”. Aurkikuntzak nazioarteko zientzia komunitatea aztoratu du, eta NASAk berak iragarri du esku artean zituen proiektu guztiak bertan behera utziko dituela enigma argitu bitartean.

*EHUKo ikerketa taldeko buruaren
EHNAko argazkia.*



SAREAN ARRANTZATUA

Eman hegoan euskarari



Eta suk ser diosu?



ArGALtzeko dieta




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545


HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



Alta Porru

Eraman etxera **Jakoba Errekondoren** jakintza
puntako **8 marrazkilari** hauek umorez komiki bihurtuta




ANTON OLARIAGA



JOSEBA LARRATXE



ZALDIEROA



UNAI ITURRAGA

BARATZEA MUNDU ASKOTARAKO ATARIA DA:
GURE KULTURAREN OINARRIA DEN LURRA
LANTZEAREKIN BATERA JORRATZEN DITUGU
INGURUMENA, HIZKUNTZA, SEXUA,
ELIKADURA, UMOREA, EKONOMIA...




UNAI GAZTELUMENDI



AINARA AZPIAZU "AKPT"



"MATTIN" MARTIARENA



ASISKO



EROSI 101 ORRIKO
KOMIKI LIBURUA KOLORETAN



19'50€

18€

harpidedunentzat

ANTOLATU KOMIKHITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak
azaltzen ditugun bitartean,
komikiak sortuko ditugu,
zuzenean!

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

edukia@bizibaratzea.eus

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
bizibaratzea.eus